

ELKARRIZKETA: ANGÉLICA OLVERA • EKARPENA: IKASLE ETORKI-
NAK HAUR HEZKUNTZAN • ESPERIENTZIA: WWW.SARETIK.NET/
OSTADARRA • GALDEIDAZUE: TOMAS URZAINKI • ANDONI AIZPURU

hh
hik hasi

107

5 EURO • 2006KO APIRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

GAIA

Waldorf eskola


Haurren
garapen
naturala
oinarri duen
hezigunea





ALBUM ILUSTRATUAK

Irakurriz goatzeko liburu zoragarriak



aurkibidea



8
gaia

WALDORF ESKOLAK

Munduan zehar ia 4.000 eskola daude Waldorf pedagogia jarraitzen dutenak. Rudolf Steiner izan zen haurraren garapen naturala ardatz duen pedagogia honen sortzailea.

Euskal Herrian ere badira esperientzia xume bezain garrantzitsuak, Aramaiokoa kasu.



16
elkarrizketa

ANGÉLICA OLVERA

Familia Sistemikoan aditua da emakume mexikarra.

Bert Hellinger-ek sortutako Familia Konstelazioen metodoa hezkuntzara ekarri du. Eskolan ere familiaren historiak duen garrantzia azpimarratzen du.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

WALDORF ESKOLAK

16 elkarrizketa

ANGÉLICA OLVERA

24 ekarpena

Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan (eta III)

Amaia Sesma, Pilar Hernández eta Ima Ortega

30 esperientzia

www.saretik.net/ostadarra

32 galdeidazue

Tomas Urzainki

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Eskolak hizketan irakasten ez duen bitartean jai daukagu euskararen normalizazioan

Helena Baraibar eta Kristina Boan

42 Atzeko atetik


Andoni Aizpuru

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANtza S.A.L. Azaleko irudia: Aramaioko Waldorf eskola. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-III-17). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararitzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala apirila

Nolako pedagogia da “geurea”?



Herri gisa gure ekarpen pedagogikoa egitea dagokigu. Euskal identitatea eta herritarren kohesioa lortzea dira, gure ustez, lehenetsi behar direnak. Eta “geure” pedagogiak horri erantzun beharko lioke.

Euskal pedagogia nolakoa den galdetuz gero, zera erantzungo genuke: euskaraz aritzen dena, eta mundu zabaleko ekarpen pedagogiko berriak gurera ekarri eta eskolako ezaugarrietara egokitzen dituen.

Seguraski, ez genuke jakingo ezer gehiago esaten. Nahiz eta beste zerbait ere badela sumatu. Alegia, guk erabiltzen dugun estiloa edo.

Jarrai dezagun “euskal” hori aztertzen eta “geure” estiloan sakontzen. Zerekin aurkitzen gara hezteko orduan?

Hezitzaileok eta gure neska-mutilak nahaste-borraste batean bizi gara. Batzuetan zazpi herrialde dira, beste batzuetan hiru, bat, lau edo sei. Euskaraz irakasten dugu gure hizkuntza delakoan eta kalean frantsesa eta gaztelania dira na-

gusi; interneten, ingelesa; telebistan pilo bat...

Izan ere, Euskal Herria herri txiki bat da. Bi estatu handien barnean kokaturik dagoena, bere hizkuntza eta kultura gutxiagotuak dituena. Estatu bakoitzak bere hizkuntza eta kultur edukiak hautatu, sakralizatu eta ezarri ditu, gure Herriaren izaera kulturala eta soziala kontuan hartu gabe.

Herri gisa gure ekarpen pedagogikoa egitea dagokigu. Euskal Herriko hizkuntza eta kultura gutxiagotuak normalizaziora eramaten laguntzea. Euskal identitatea eta herritarren kohesioa lortzea dira, gure ustez, lehenetsi behar direnak. Eta “geure” pedagogiak horri erantzun beharko lioke.

Eguneroko lanean ari garenean, ez al diogu, neurri batean, nahi horri erantzuten? Lagungarria litza-

teke gure pedagogoen lana ezagutzeari. Pedagogo nabarmenik ez badugu ere, azter dezagun hasierako andereño haiek eta ondorengoek haurrekin zuten harremana, nola irakasten zuten, zer balio transmititzen zituzten, nola euskalduntzen zuten, etorkinak bertakoekin elkarbizitzen nola jartzen zituzten, zein helbururekin hezten zuten eta zentro bakoitzeko komunitateak zer funtzio betetzen zuen. Eta azter dezagun, baita ere, gaur egun hezitzaileok egiten duguna.

Azter ditzagun hain ezagun ez diren pedagogo langile horiek. Euskal hezkuntzaren garapenean elkarrekin aritzeak zer garrantzia izan zuen, eta duen. Ohartuko gara, seguruenik, pedagogoez baino mugimendu pedagogikoaz hitz egitea zuzenagoa izango dela, gure estiloan.

kronika

Francoren garaian ikastoletan lan egin zuten 100 bat andereñoek, denera sei milioiko pentsioa jasoko dute. Euskaraz irakasteko debekua zela eta kotizatu ez zuten horiek, ordainean erretiro pentsioa izango dute. Dena dela, guztira 200 andereñoen izenak dauden arren, 100ek soilik betetzen dituzte martxoaren 14an Espainiako Kongresuan onartutako mozioak zehazten dituen baldintzak. Aipatu mozioak dio andereño horiek kotizatu gabe egin zutela lan euskaraz irakastea debekatuta zegoelako. Horregatik, orain, lan ordu haiek kotizatu egingo zaielki. Halere, andereño bakoitzaren egoera banaka aztertuko dute. Emilio Olabarria EAJko Madrilgo parlamentariaren hitzetan, mozioa "memoria historikoaren berreskuratzea" da.



Seaskako Integrazio Batzordeak 48.000 euro behar ditu aurten 11 haurrentzat

Urtetik urtera igoz doa Seaskako ikastoletan dabilen ahalmen urriko haur kopurua, eta denei erantzutea du helburu Integrazio Batzordeak. Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez dizkio ahalmen urriko haur guztiak eskola arruntean integartzeko baliabideak ematen Seaskari. Horregatik, hutsune hori betetzeko, euskal herritarrei eskatzen die laguntza. Aurten 48.000 euro behar ditu 11 haur integartzeko.

Izan ere, eskola arruntean eta euskaraz, besteekin eta besteen artean, eskolatuak izateko eskubidea denei bermatu behar zaiela uste du Seaskak. Hasieran, adituek bestelako

iritzia zuten. Haien iritziz, ezinezkoa zen ahalmen urriko haur bat elebiduna izatea. Alta, Seaskak hori ez dela horrela frogatu du, hau da, baliabideak egonez gero, posible dela integrazioa lortzea.

Laguntza herritarrengandik dator

Frantziako Gobernuaz gain, gainerako botere publikoek ere ez dute diru laguntzarik ematen. Hala ere, Seaskak diskriminazio positiboa defendatzen du, eta estatuak defendatzen ez duten eskubidea berak defendatzeko ahalegina egiten du.

Zeregin horretan herritarren eta hainbat elkarteren laguntza jasotzen du. Urtero bezala, aurten ere *Irratsei* irrati emankizuna egin dute: sei ordu-tan zehar Euskal Irratiak Integrazio Batzordearen aldeko dirua biltzen aritu dira. Eta aldi berean, jende askoren partaidetza izan duten solasaldiak egin dituzte. Jende askok eman du dirua eta iaz baino 3.000 euro gehiago batu dituzte: 20.000 euro denera. Edonola ere, oraindik 48.000 eurora iristeko falta da, eta beste ekimen batzuk ere antolatuko dituzte beste zenbait elkarteren partehartzearekin eta laguntzarekin. Beste ekimenen artean, partaide kanpaina ere abiatu du. Kanpaina honen bidez, batzuk zuzenean ematen dute diru laguntza.

“Curriculumaren muina honetan datza: balekotzat edo baliozkotzat onartzen diren ezagutzak eta moduak zein diren eta zein bazterten diren ezagutzea, baita nork erabakita eta zertarako egiten den jakitea ere”.

Gurutze Ezkurdia



Etorkinak ere euskarazko ereduaren alde

Eskualdez eskualde dabil “*Bai eskolak euskalduntzeari!*” kanpaina herritarren sinadurak biltzen. Maiatza bitartean hala jarraituko du eta dagoeneko atxikimendu ugari jasotzen ari da, besteak beste, kanpoan jaio eta Euskal Herrian bizi diren hainbat herritarrena, Nafarroako Sakanan, esate baterako.

Kanpotik etorritako ugari bizi dira bertan. D ereduaren aldeko apustua egin dute eta besteei ere hala egiteko azpimarratzen die. Arrazoi sendo bezain pisudunak aipatzen dituzte horretarako.

Hasteko, hainbat etorkinek seme-alabak D ereduaren matrikulatzeko eskatu diete gainerakoei, baina euren hizkuntzan egin dute eskaera. Euren us-

tez, “bertako hizkuntza ikastea da kanpotik datorrenaren kultura ezagutarazteko modurik onena”. Izan ere, bertakoekiko komunikazioa errazten du. Alta, ez hizkuntza soilik, kultura ere trukatzen da: “bertakoen kultura ezagutzen duzunean errazagoa da zurea ezagutzera ematea, zure kulturaren berri besteei zabaltzea” diote.

Horrez gain, errealitatea bere osotasunean ezagutzeko, bertako hizkuntza ezagutzea garrantzitsutzat jotzen dute. “Bertako hizkuntza ezagutzen ez baduzu, errealitatearen erdia edo gehiago galtzen duzu”. Eta eurak argi zuten ez zutelako horrelakorik nahi.

Arrazoi horiek guztiak tarteko, eskola euskaldunaren aldeko agiria sinatu dute. Hemen bizi dira, hemengo herritarrek dira, eta hemengo hizkuntza ikasteko duten eskubidea azpimarratu nahi izan dute. Euren seme-alabek eskubide hori izan dezaten nahi dute. Eta horretarako, administrazioari baliabide gehiago jartzeko eskatu diote. Izan ere, horrela, “normaltasunez bizitzeko eta garatzeko aukerak izugarri zabalduko” zaizkiela diote.

Sakanako Mankomunitateak ere bat egin du kanpainarekin. Aipagarria da bailara honetan azken urteotan euskararen eta D ereduaren berri zabaltzeko egiten ari diren ahalegina. Ondorioak ere antzematen dira; gaur egun euskaraz mintzatzen dira etorkinak.

Isabel Celaá Legebiltzarreko PSE-EEko bozeramaileak euskal curriculumaren “doktrinazkoa, alderdikoia eta etnizista” dela adierazi du eta proposamenarekin ez dutela bat egiten ere bai.

“Hezkuntzan ez dugu Ibarretxe Planik onartuko” esan du. “Curriculum Nafarroa, EAE eta Ipar Euskal Herriaren identitate nazional bat eraikitzeke estrategia independentista baten zerbitzura dagoen tresna” dela ere gaineratu du. Horrez gain, Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak ez duela inolako eztabaidarik bultzatu kritikatu du.

Hezkuntza sailburuak curriculumaren egileak hezkuntza sistema osoa ordezkatzen duela esanez erantzun du. Hezkuntzako eragile nagusien arteko elkarlanaren ondorio dela eta hemendik aurrera parte-hartze handiagoa eskatu duten elkarteei horretan lagunduko diela adierazi du, EHIGE, BIHE eta Sarean aipatuz.

GAIA

Waldorf eskolak

Haurraren garapen naturala





Zer da Waldorf pedagogia?



Utopia
izan zitekeen, baina jada ez da. Euskal Herrian Waldorf eskolak zabaltzen hasi dira.

Munduan zehar asko zabalduta dagoen mugimendu pedagogikoa da Waldorf deritzona, eta Aramaion eta Gasteizen ditugu gure lehen esperientziak. Haurraren garapen naturala dute ardatz, eta horren arabera antolatzen da dena.

G

Rudolf Steiner da Waldorf pedagogiaren atzean ezkututzen den izea. Filosofia eta Letretan doktorea zen Rudolf Steiner Austrian jaio zen 1861ean eta Suitzan hil 1925ean. Filosofoa eta zientzialaria, berrikuntza sozialaren mugimendu herritarren gidarietako bat izan zen. Haren bizitzako zereginik entzutetsuena eta nagusia Waldorf pedagogia gisa ezagutzen dena sortu izana da.

Lehen Mundu Gerra bukatu osteko (1919) giro politiko eta sozial nahasian Rudolf Steinerrek Emil Molt enpresariaren enkargu bat jaso zuen: Stuttgart-eko Waldorf zigarro fabrikako langile guztien seme-alabentzat eskola libre bat antolatzea eta zuzentzea. Proposamena onartu eta lehenengo irakasle taldea prestatu zuen, eta bost urtetan zuzendu zuen eskola. Pedagogia berri baten oinarri metodologikoak eta didaktikoak ezarri zituen: giza naturaren ezagutza sakonetik abiatzen da aipatu pedagogia eta gizakiaren eboluzioaren hainbat etapetara egokitzen da.

Hezkuntza eredu bizia eta soziala izateko xedez sortu zuen. Haren ustez hezkuntza artelan baten moduan eraman behar zen aurrera, giro aske eta sortzailean. Hezkuntza benetako aldaketa sozialaren motorra zela uste zuen.

Aldi berean, gau eskolak ematen zizkien fabrikako langileei eta bere eskolako irakasleak prestatzen zituen.

Mundu osoan zehar hedatu da

Eskola berehala handitu zen eta 700 ikasle baino gehiago izatera ailegatu zen denbora gutxian, edozein fabriketako eskola baten mugak gaindituz.

Stuttgart-eko lehen eskola hark oihartzun handia izan zuen Alemanian eta inguruko beste herrialdeetan. 1923az geroztik jardunaldi pedagogikoak eta hitzaldiak ematen hasi

zen Steiner, eta ondorioz, Waldorf Eskola gehiago ireki ziren Holandan, Ingalaterran, Suitzan eta Alemanian. 1938an alderdi nazional-sozialista iritsi zen boterera eta Waldorf eskola guztiak itxi egin zituen, ez baitzuen onartzen "askatasunerako hezten" zuen eta haur bakoitzaren garapen indibiduala azpimarratzen zuen pedagogiarik. Baina 1945ean egiaztatu zenez, ideia pedagogikoko horrek klan-destinitatean zabalduz jarraitu zuen.

Gaur egun, munduko mugimendu pedagogiko libre garrantzitsuena da. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 2.000 eskola baino gehiago daude eta Haur Hezkuntzako 1.900 zentro baino gehiago 72 herrialdeetan barreiatuak, herrialde garatuetan (Suedia, AEB, Kanada, Australia) zein ez hain garatuetan (Brasil, Ekuador, Kolonbia, Peru). UNESCOren "Eskola kide" en barruan daude. Euskal Herrian dagoeneko bi ekimen daude abian: alde batetik Gasteizko Parsifal haur eskola; eta bestetik, Aramaioko ekimena. Azken hau Amets-Waldorf Elkarteko kide da. Esan beharra dago elkarte honek Gasteiz inguruan beste ekimen bat abian jartzeko asmoa daukala.

<http://www.amets-waldorf-euskadi.org/>
ametswaldorf@netscape.net



Mundua ona da

0-7 urteko haurrentzako leloa horixe da: mundua ona da. Garrantzitsua da haurrek hori ikustea eta hori transmititu behar zaie nagusitan konfiantza eduki dezaten. Gero ez dakigu ona edo txarra izango den, denetik baitago. Baina 7 urteko haur bat mundua ez dela ona pentsatuz eta beldurrez irteten bada, errukigarria da.

Hala ere, ez da nahikoa kontatzea edo esatea, haurrak bizi egin behar du. Waldorf eskolak hori biziartzen saiatzen dira; haurrak bizi dezala mundua ona dela.

Mundua ederra da

7-12 urteko gaztetxoentzako leloa da. Mundua ederra dela sentitu behar dute. Mundua zerbait abstraktu moduan aurkezten bazaie, berotasunik eta erakargarritasunik ez da agertuko. Landu behar den oro modu bizian eta irudimentsuan aurkeztu behar zaie motibazioa eta interesa estimulatzeko. Horretarako tresna lan guztietan alderdi artistikoa garatzea da. Uneoro eta eginkizun guztietan artistikoari eman behar zaio lehentasuna, ez ikasgai artistikoetan soilik.

Mundua egiazkoa da

13-18 urteko gazteei zuzendua. Jarrera zientifikoak garrantzi handia dauka garai honetan. Izan ere, zerbaiten gaineko iritzi independente batera heltzeko, beharrezkoa da jarrera zientifikoa; hau da, aurreiritzirik onartuko ez duen jarrera, emozioak alde batera utzita. Horrela bada, esperimentuek eta alderdi praktikoei garrantzi handia daukate.

Bestalde, irakasleak bai profesionalki bai bere eguneroko bizitzan koherentea izan behar du; izan ere, gazteak kritikoak eta idealistak dira. Hori dela eta, eskolak sarritan elkarriketez eta eztabaidez osatzen dira.

Waldorf pedagogiaren ezaugarriak

“Haur bakoitza pertsona bakar gisa hartu; elkarrekiko konfiantzazko harremana sortu harekin; haren gaitasunak eta potentzialitateak ikusten, hedatzen eta goستن utzi; hori da eskolaren zeregina. Edo halaxe ikusten du, behintzat, Waldorf Eskolen Nazioarteko Mugimenduak, eta horrela UNESCOk hezkuntza arloan egiten duen lanari eta hausnarketari lotzen zaio”.

Askatasuna oinarritzko baldintza da bizitza kultural sortzailea eduki nahi bada. Waldorf eskolak “eskola libreak” izendatzen dira, euren egiteko nagusia haurrak askatasunean heztea delako. Gizaki errespetutsuak izateko behar dituzten tresnak jasotzen dituzte eskolan.

Naturarekiko harremanak izugarritzko garrantzia du. Urtaoen erritmoa eta ezaugarriak gertutik bizitzen dituzte. Gizakiak naturarekin eta ingurunearekin duen harremanaren kontzientzia hartzei garrantzitsua deritzote.

Haurren erritmoa errespetatzen da. Haurrak bizitzako beharrei erantzuteko, haren erritmoa eta garapen naturala errespetatzen duen pedagogian oinarritzen dira. Aldi berean, hausnarketa lan bat egiten da garapenean sortzen zaizkion beharrei erantzuteko.

Haurra da ekintza eta une guztien erdigune. Haurren heziketak helburu bat du: haren garapen korporalean, psikologikoan eta kognitiboan laguntzea autonomo izan dadin, eta horrela, heldua denean inizatiba edukitzeko eta libreki hautatzeko gai izan dadin. Beste modu batera esanda, bere inguruan sormenaz ekiteko gai izan dadin. Horregatik da haurra uneoro zentrua.

Ikasgaiak eta lan metodologia

Ez zaie ikasgai konkretuei soilik ematen garrantzia, baizik eta irakas-



kuntzako arlo anitzetan garatzen diren trebezien ekintza bateratuari. Diziiplina desberdinen arteko eraginak zera ahalbidetzen du: gaitasun psikikoak modu harmoniatsuan haztea eta garapen etapa desberdinetara ongi egokitzea. Zentzu horretan, Waldorf programaren asmoa da ezagutza intelektualak eta etengabeko praktika artistiko eta artisauen artean oreka lortzea. Helburua gizakiaren barruan dauden hiru indarrak orekatzea da: pentsamendua, sentimenduak eta gogoia.

Waldorf eskoletako **programazioa** haurren garapenaren arabera egiten da. Hau da, ikasketa planak haurren garapen etapak eta inguruko errealitate soziala izaten ditu kontuan.

Eskola planak ezin du finkoa izan, uneoro berregin eta egokitu behar da haur bakoitzaren arabera. Eta horrek irakasleentzako etengabeko prestakuntza eskatzen du. Hori dela eta, Lehen Hezkuntza osoan talde berberarekin aritzen da irakaslea, eta horrek ikasleak

Waldorf pedagogia



sakonki ezagutzea errazten du. Irakasle horrek irakasle talde baten laguntza izaten du, eta horiek ikasgai artistikoak edo artisautzakoak ematen dituzte (euritmia, pintura, soin heziketa, zurgintza, forjaketa eta abar).

Ordutegia

Waldorf eskoletan, Lehen Hezkuntzan, eguneroko zeregina organikoki egituratzen da. Haurrak erraztasun gehiago izaten du goizean lan intelektualak egiteko. Beraz, jakitea, ulertzea, pentsatzea eta prestatzea eskatzen duten edukiekin hasten da eskolako zeregina.

Goizero, irakaslea ikasleen aurretik sartzen da gelara. Ikasleak etortzen direnean, banan-banan hartzen ditu, eskua emanez eta euren izena aipatuz. Horrela, irakasleak ikaslea nola datorren jakin dezake. Ondoren joko erritmikoak egin, abestu, txirula jo... Ikasle bakoitzak, gainera, irakasleak berari egindako poema deklamatzeko du, bera jaio zen asteko egunean. Horrek guztiak gelan kokatzeko eta taldea batzeko balio du. Hiru-lau astetan arlo bera irakasten da lehenengo bi orduetan.

Jarraian, txandaka, errepikapen erritmikoa eskatzen duten espezialitateak lantzen dira: atzerriko hizkuntzak, euritmia, soinketa, musika eta etika. Eskulanak, tailerreko lanak, lorezaintza edo esperimendu zientifikoak goizaren bukaeran edo arratsaldetan jartzen dira. Hau da, errepikapenean oinarritutako ariketak dituzten eskolak bukatu ostean, ezaugarri artistiko-praktikoa duten zereginetara pasatzen dira.

Modu horretara, eskolako jarduna egunaren erritmo naturala jarraituz an-

tolatzen da, eta ez irakaslearen gutiziarren eta erosotasunaren arabera.

Maila xumeagoan, mugimendu hori errepikatzen da eskola edo klase bakoitzean. Oroimenari eta hausnarketari denbora gehiegi eskaintzen baldin bazaie, haurrak ahuldu eta nekatu egiten dira. Parte-hartze emozionalak eta gogo aktiboak, ostera, masailak gorriarazten ditu berriro.

Ikasgaiak **prozesuak bizirik** irakasten dira, naturaren legeak ikusiz eta munduarekiko, bizidunekiko eta gauzekiko interesa piztuz. Ikasgai guztien funtzioa trebeziak esnaraztea da. Orduan, irakasleak, edukiak irakasteko orduan, kontuan hartzen du haurren garapen ebolutiboa.

Ikasleek euren **testu liburuak** egiten dituzte ikasgai guztietan eta maila guztietan. Gelako liburutegia elementu nagusia da kontsultak eta irakurketa bultzatzeko.

Ez da notarik existitzen. Haurrak ez dira azterketekin eta errendimendu eskakizunekin presionatzen. Horren ordez, indibidualtasunean oinarritutako garapen kooperatiboa bultzatzen dute. Garrantzitsuena zera da: erizaina, intelektuala edo artisaua izan, bizitzan prestakuntza kultural zabal batekin kokatzea gazteak.

Irakaskuntzan bertan eta heziketan prozesu artistikoa ikusten dute. Modu horretara, ekintza pedagogikoa gizaki bakoitzaren ulermen, sormen eta erantzukizun sozialaren gaitasunak promozionatzeko datza. Horrela, pedagogia gizaki bakoitzaren eta gizartearen parte-hartze sortzaile bilakatzen da.

Eguneko erritmoa

Pentsa dezagun biltegi handi bateko langile batek lanegun batean zeregin hauek bete behar lituzkeela:

8:30-9:20 Telefono deien harrera zerbitzua

9:30-10:20 Lurrin-dendan saltzen

10:30-11:20 Bulegoan fakturazioak egin

11:20-12:05 Bazkaldu

12:05-13:30 Aurrezko kutxetako maileguen kudeaketa


13:50-14:30 Garbiketa

14:40-15:30 Iragarki kartelen pintura

15:40-16:15 Programazio lanak

Inork ez lioke egunero horrelako lan nahasia eginaraziko: ez litzateke batere razionala izango. Aitzitik, ikasleei antzeko printzipio batean oinarritutako ordu-tegi kaotikoa inposatzen zaie.

Rudolf Steinerren iritziz, prozedura horrek haurren kontzentrazio gaitasunean ikaragarriko kaltea egiten du.



Aramaioko Waldorf eskola



Itxuraz ez dago eskolarik Aramaio-ko auzoetan. Mendi kaxkoetan eliza eta laupabost baserri. Hori bai, paraje ezin hobean.

Begira jarri orduko, ordea, mugimendu pixka bat antzematen da. Baserri bateko beheko leihoetatik haurren ahotsak entzuten dira: jolasean dabiltza batzuetan, kantari beste batzuetan. Tarteka kanpora ateratzen dira. Ez dago jolastokirik edo zaburik baserriaren inguruan, baina ez du axola. Eliza inguruko txokoak, zuhaitzak, aska, belardia... dauzkate, eta bada zerekin gozatu.

Pozik eta gustura ikusten dira haurrak eta irakaslea, eta baita lehen eta azken orduan hurbiltzen diren gurasoak ere. Euskal Herriko Waldorf eskola bat osatzen dute. Eskola baten itxura baino, etxe baten itxura du, kanpotik bezala barrutik. Gelara sartzeko denek oinetakoak kendu eta etxeko zapatilak jantzen dituzte. Gela goxoa da, egurrezko mahaia, aulkiak eta jostailuak,

artilezko alfonbrak, harriak eta egurrak, landareak... Material asko ez dago, baina dagoena naturala da. Margoak ere argizarizkoak dira.

Aurtengo ikasturtean jarri dute martxan eskola. 3-5 urteko 11 haur eta Miriam hezitzailea elkartzen dira egunero 9:00etatik 13:00etara.

Zer egiten dute? Nolakoa da Aramaio-ko Waldorf eskolaren bizitza? Nolakoa da egun bat? Bi ildo nagusik markatzen dute eguneroko erritmoa: haurren garapenak eta naturak. Lotura handia dute ingurunearekin eta urtaroen berezitasunak ikasi, ikusi eta bizi egiten dituzte.

Eguneroko jarduna

Jolas librea: haurrak etortzen direnean Miriam hezitzailea ekintza bat egiten egoten da, eta ekintza urtaruari lotutakoa izan ohi da: udazkenean arto zuriketean, neguan sua pizten eta infusioa prestatzen, josten, gaztainak zuritzen, haurrentzat jostailuak egiten... etxean

egiten diren ekintzak izan ohi dira. Haur batzuk berarekin hasten dira, eta beste batzuk bitartean jolas egiten dute.

Hezitzailea ekintza bat egiten ari bada, haurrak ere zerbait egiten hasten dira. Eta hori da goizeko lehen ekintza honekin bultzatu nahi dena. Bestalde, egiten den ekintza orok beti du zentzua.

Ekintzaren ondoren, lasaitasuna dator beti. Garrantzi handia ematen diote erritmoari. Kasu honetan, arnasa hartzen eta lasaitzen ikasten dute.

Gero txiza egin, eskuak garbitu... Ekintza oso polita dela dio Miriam Txintxurreta hezitzaileak. Komun bakarra dute eta beraz, itxaroten eta txandak errespetatzen ikasi behar dute. Batek eskuak garbitzeko, beste batek palankari eragin behar dio. Horrekin elkarlana lantzen dute.

Korroak: ondoren, urtarorekin lotutako abestiak lantzen dituzte. Mugimendua eta hitza lotuta duten abestiak, olerkiak, errimak...

Hamarretakoa: egunero prozedura berdina jarraitzen dute, haurrari errepikapenak izugarrizko segurtasuna ematen diolako, hau da, gero zer datoren jakiteak. Hori barneratu egiten dute eta lasai egoten dira, badakite hamarretakoa iritsiko dela eta ez dute presarik izaten.

Hamarretakoa ekintza soziala, polita eta gustukoa izan dadin nahi dute.

Mahai inguruan jarri eta atzamarrekin ipuin bat kontatzen du Miriam. Normalean urtarorekin lotuta egoten da eta lau astetan zehar errepikatzen du. Ondoren abestitxo bat kantatzen dute eta gero eskerrak ematen dizkiete lurrari eta eguzkiari emandako jakiengatik.

Denek elkarrekin jaten dute fami-

Aramaioko esperientzia



lian bezalaxe, eta hor ere gauza asko ikasten dituzte. Izan ere, egungo famulietan asko bakarrak dira, edo asko jota bi, eta ez daude ohituta itxaroten, banatzen... Astean behin norbaitek etxean egindako zerbait ekartzen du gainera-koekin partekatzeko. Imitazio garaian daudenez, oso garrantzitsua da irakaslea lasai egotea, maitekiro, pazientziarekin, keinu suabeekin eta zabarkeriarik gabe.

Ahal den neurrian janari biologikoa jaten dute. Naturarekiko harreman es-tua dutenez eta lurra zaintzen dutenez, euren gorputzak ere zaintzen saiatzen dira.

Sarritan infusioa hartzen dute eta

denen artean prestatzen dute: batzuk erromeruaren edo melisaren bila joaten dira ortura, beste batzuk ura hartze-ra... Ardurak banatzen dira, bakoitzak bere funtzioa edukitzen du, eta horrela borondatea landu eta erantzukizunak hartzen ikasten dute.

Gela jasotzea: jolas modura planteatzen dute zeregin hori. Ez baita gauza bera, “ea, jaso dezagun gela” edo “gaur nor izango da kale garbitzailea?” esatea.

Eskulanak: atzamarrak asko lantzen dituzte (“atzamar arinak, buru argiak” esan ohi da) eta baita ukimenaren zentzumena ere.

Kanpora: zapatilak erantzi eta berokiak janzen dituzte. Eta nagusiek txikiei laguntzen ikasten dute. Jostailu gutxi daukate, hor bertan dagoenarekin moldatzen dira: lurra, makilak, hostoak, belarra, intxaurrak... garaian garaiko gauzekin asmatzen dituzte jolasak. Egunero ordu eta laurden gutxienez egoten dira kanpoan.

Ipuinaren ordua: berriz barrura sartutakoan urtaroaren mahaian biltzen dira denak. Mahai hau urtaroko ezaugarriekin atonduta egoten da, eta Miriamek urtaroari dagokion ipuin bat kontatzen die; landu nahi diren balioen arabera, ongi hautatuko ipuina.

Agurra: joateko garaia iristen denean irakasleak haurrak banan-banan agurtzen ditu.

Jaialdiak: urtean zehar hainbat jaialdi ospatzen dituzte haurrek eta gurasoek denek elkarrekin, betiere urtaroen erritmoari jarraituz: iraila bukaeran uzta jasoketa, Santa Ageda eskea, udaberriaren hasiera, udako solstizioa...

Waldorf formazioa


Waldorf eskolan hezitzaile gisa aritzeko prestakuntza berezia egin behar da. Euskal Herrian ez dago berau egiteko aukerarik: Madrilen eta Vigon gaztelaniaz, Bartzelonan katalanez eta Parisen frantsesez.

Hiru urteko formazioa da. Lehendabizikoa autoformaziorako izaten da; bigarrenetan metodologia lantzen da; eta hirugarrenean didaktika.

Maila bakoitza zortzi ataletan banatuta dago eta bakoitzaren inguruan hitzaldi bat egoten da. Mundu osoko hizlariak izaten dira; sarritan 40 urtetan irakasle izandako 70 urteko pertsonak. Hizlari guztiak esperientziadunak izan ohi dira.

Lantzen diren gaiak: antropologia, psikologia, motrizitatea, hizketa, haurren garapen kognitiboa, haurren garapen emozionala, zentzumena, musika heziketa, eskulanak, ipuinak, buztina, egurra, nekazaritza, pintura, haurren behaketa, etxeko lanak, jolas librearen garrantzia, antroposofia, norbere heziketa eta Waldorf eskoletan praktikak.

Helburua: hezitzailearen askatasuna, inizatiba eta sormena dira pedagogia honen oinarri. Haurrak hez-teak lan pertsonal sakona eskatzen dio helduari. Gai izan behar du ikasleen heltze prozesuak antzemateko, eta naturako fenomenoek eta gure garaiko eragin zientifiko, historiko eta sozialez jabetzeko.



“Zerbait ona egiten ari garen sentsazioa daukagu”



Nolatan sortu duzue Waldorf pedagogian oinarritutako eskola?

Jose Antonio Pagaldai.- Guraso batzuk gure haurrekin zer egin pentsatzen hasi ginen duela pare bat urte, zernolako hezkuntza nahi genuen. Zorionez, batzuek Waldorf pedagogia eza gutzen genuen eta horrelako eskola bat edukitzeko zer egin genezakeen pentsatzen hasi ginen. 6-7 haur prest zuela ikusi genuen, eta Waldorf formazioa zuen hezitzaile bat ere bagenuenez, aurrera egitea erabaki genuen.

Idoia Beitia.- Nire kasuan, haurra eskolara eraman edo ez zalantzan nengibilen. Hala, Madrilgo Waldorf eskola bateko bideo bat iritsi zitzaidan eskuetara. “Horrelako eskola bat nahi dut nire semearentzat” pentsatu nuen. Baina, hemen ez zegoenez, ezer ez. Gero, ordea, asmo honen berrijakin nuen, eta bi aldiz pentsatu gabe erabaki nuen.

Zer nahi zenuten bada, zuen haurrentzat?

Jose Antonio.- Gure seme-alabak zoriontsuak izatea nahi genuen. Noski,

hori denok nahi dugu, baina bakoitzak bere modura ulertzen du zoriontsu izate hori. Eta gure zoriontasunaren ideia hemen lantzen denarekin bat dator: naturarekin ahalik eta harremanik estuena izatea, hemen egiten diren moduko ekintzak egitea, horrelako leku goxo batean eta horrelako irakasle batekin. Ezer kendu gabe beste inori, hori garbi gera bedi. Baina guk gure ideia edo ildo jarraitu nahi genuen.

Zein dira zuen ideia horiek?

Miriam Txintxurreta.- Azken finean, kontuan izatea haurren garapena eta horren arabera zerbait eskaintzea. Beste modu batera esanda, haurrari loratzen uztea. Azken batean haurra hazitxo bat da eta guk egin behar duguna da ahalik eta ondoen ureztatu, maitatu, eguzkia eman eta loratzen utzi. Ez gauzak eman, baizik eta berari utzi poliki-poliki, maitasunez hazten.

Adin bakoitzean haurrak behar batzuk ditu eta horiei erantzuten saiatzen da Waldorf pedagogia. Esate baterako, antzerkia 3. DBHn lantzen da. Zergatik? Adin horretan nerabezaroan daude,

“Gure seme-alabak zoriontsu izatea nahi dugu, eta gure zoriontasunaren ideia hemen lantzen denarekin bat dator”

burmuinean izugarriko iraultza sortzen zaie, ezinegona, jarrera pasiboa, kaleko argota... eta antzerkiak osatzeko aukera ematen die: barrutikatera eta munduaren aurrean kokatu behar dute, ganoraz eta dotore egin behar dute berba...

Jose Antonio.- Maitasuna. Nik hori hizki handiz jarriko nuke. Hori oso garrantzitsua da, bai lanarekiko maitasuna, eta batez ere haurrerekikoa.

Beste bi ideia askatasuna eta errespetua dira. Haurra pertsona bat da. Geure burua maitatzen badugu, haurra ere maitatu eta errespetatu egin behar dugu.

Miriam.- Eta irudimena eta fantasia lantzea. Txikitan jolasaren bidez lantzen dira eta oso garrantzitsua da, gero-ra pentsamendu sortzailerako bidea ematen baitu. Irudimena askatasunerako atea dela esan dezakegu; aldeztirik ezarritako zerbait norberak beste era batera irudikatzea da.

Nolakoa da gurasoen inplikazioa?

Jose Antonio.- Harreman oso-oso estua dugu. Hasteko, guk geuk sortu dugu eskola, eta horrek zerbait esan nahi du. Gogoia, jarrera irekia eta kontzientzia badaude, eta badakigu proiektu honek aurrera egiteko denon indarra eta lana behar dela. Eskolarekin batera, guraso eskolasortu dugu eta guraso guztiok gaude hor. Eta baita datoren urtean haurra hona ekartzeko asmoa duten batzuk ere.

Gainera, ez da gure seme-alabentzat soilik nahi dugun proiektua, baizik eta gerora ere beste haurrentzat eta gizartearentzat ere bai.

Aramaioko esperientzia



Idoia.- Implikazio maila desberdina izan daiteke: batek egurrezko mahaia egingo du, besteak bere baserrira eramango gaitu, besteak alfonbrak ekarriko ditu... baina gutxieneko bat behar da. Eta horrek denak koherentzia bat eskatzen du, hau da, etxean jarraipen bat izatea, bestela ez du zentzurik.

Zeri deitzen diozue etxeko jarraipena?

Idoia.- Eskolako ideiak edo fisiofiarekin bat etortzea etxeko jarduna ere, koherentzia izatea eskolan lantzen denarekin; esate baterako, lasaitasuna ematea, erritmoak zaintzea (jatorduak beti ordu berdinetan...), arropa zaintzea... Eskolan harrizko eta egurrezko jostailuak erabiltzen badira, gero etxean denak plastikozkoak ez izatea.

Jose Antonio.- Hori egin ezean ez du zentzurik horrelako eskola "arraro" batera ekartzea haurra. Ni Waldorf irakasle bat izango banintz, ez nuke arazorik izango guraso bati esateko hobe lukeela haurra hona ez ekartzea jarraipenik egin ezean. Zeren bestela, haurrak bi mundu bizi beharko lituzke eta hori oso arriskutsua da. Koherentzia egon dadila eta ikus dezatela zu ere ahalegintzen zarela.

Legedi aldetik, zein egoeratan zaudete?

Jose Antonio.- Gurasook sortu dugu, gure inizatibaz. Familia batek utzitako etxe batean gaude. Behin-behineko tokia da eta beste bat bilatzen ari gara eskualde edo inguru horretan. Hezitzailea eta kostuak ere gurasoen bizkar gelditzen dira. Gure helburua Hezkuntza Sailarekin kontzertu bat lortzea da. Herrialde batzuetan Waldorf eskolak publikoak dira.

Berez bakoitzak nahi duen hezkuntza edukitzeko eskubidea du, bestela ez dago pedagogia askatasunik. Eta zentzu horretan, guk hau nahi dugu.

Nola ikusten duzue jarraipena?

Jose Antonio.- Gure helburua jarraitzea da, ikusiko dugu zer gertatzen den. Dena dela, ez bada posible, eta haurrek beste eskola batera joan behar badute, ez da ezer gertatzen. Alderantziz, hobe hasierako urteetan hemen egon izana.

Zer eskaini dizue esperientzia honek?

Jose Antonio.- Gure alaba hona etorri eta lehenengo egunetik oso ongi

sentitu da, ez du egokitzapen prozesurik behar izan. Asteburuetan ere eskolara etorri nahi izaten du. Zorutzen dago. Eta pentsa gu nola gauden bera horrela ikusita. Bide onetik doan sentsazioa daukagu, eta horrek izugarritzko lasaitasuna ematen digu.

Idoia.- Nirea ere oso gustura dabil. Ez du etxera joan nahi izaten. Hitz egiten ikasten ari da, eta pertsona izen bi ikasi ditu oraingoz, izebarena eta irakaslearena. Etxean gustura egiten dugu jarraipena, eta guraso gisa guretzat ere ona dela uste dut. Pertsonalki bete egiten nau eta gauzak beste modu batera hartzen ditut orain, beste modu batera ikusten ditut haurrak.

Miriam.- Nik, hezitzaile gisa, zerbait ona egiten ari garen sentsazioa daukat, bai ni eta bai gurasoak. Izugarritzko zortea eduki dugu proiektuaren hasieran egotearekin; hasierako lanak asko dira, baina beste kalitate bat du horrek. Haurrek ikusi egiten dituzte gurasoak esekitokia jartzen, lokarriak lotzen laguntzen, jolas garaian eurak zaintzen, irakaslea gurasoei laguntza eskatzen... eta hori oso gauza handia da, batez ere bizi dugun indibidualismo garai honetan.



angélica olvera

ELKARRIZKETA

Familia Sistemikoko aditua eta ikerlaria

// Sustrairik gabe, hegorik ez dago. Eskolatik erreskatatu egin behar dira familiaren historia eta testuinguruaren historia //



angélica olvera

E

// Gudan
hizkuntza
konkistarekin galdu
zen, baina oraindik
ez diogu hileta
erriturik egin, ez
dugu hori benetan
gertatu zela onartu.
Galerak ere aitortu
egin behar dira,
zerbaiten existentzia
onartzea zerbait horri
iraupena ematea
baita, eta izatea.

//

Familia Sistemikoa garatzen eta ikertzen nazioarteko erreferente da Angélica, Hezkuntzara eraman baitu Bert Hellinger-ek sortutako Familia Konstelazioen metodoa.

Angélicak 35 urte daramatza hezkuntzan, eta Mexikoko Tlalneptla hirian CUDEC ikastetxeko ikasketaburua da. Eskola da haren etxea, eta ez metaforikoki soilik: ikastetxe aurrean bizi da. Haren hitzetan, “zuzendariarekin oheratuta” lortu du eskolan proiektu berriak gauzatea (senarra baitu), eta seme-alaben parke kuttuna jolaslekua izan da. Makroetxe horretan 7.000 ikasle, 900 irakasle eta 14.000 guraso biltzen dira. Guztiei eskolako sistemaren beren lekua ematea izan da Angélicaren bokazioa.

Ikasmenez bizi da Angélica, soluzioen egarri, buruan beti hamaika proiektu dituela. Energia dario, umorea, poza, sortzeko gogoia. Sustraietara joz begiratzen dio etorkizunari. Erroetako bat euskalduna du.



Mexikarra zara. Zure sustraien adar bat Euskal Herritik dator: amaren birraitona euskalduna zenuen. Lehen aldiz etorri zara, eta zer aurkitu duzu?

Hau oso ezaguna egiten zait; bizitza osoa hemen eman dudala iruditu zait, eta itzuli egin naizela. Klima, mendiak eta hizkera bera oso etxeko sentitu ditut. Nire amak esaten zuen moduko esaldi bat entzuten dudana aldiro apuntatu nahian aritzen naiz (“ojo al parche”, adibidez), esaldi horiek Mexikon ez baitituz etxetik kanpoko testuinguruetan entzun, eta beraz, oso familiakoak dira.

Familia sistemaren ikuspegitik, zer azalpen ematen diozu horri?

Nik igartzen dut familia sistemaren badela informazio emozional bat, oinordetzan jasotzen dena. Sistema horretan badira hortxe dauden oroi-minak, heriotza, saminak, eta informazio hori ez bada ordenatzen eta bere lekuan jartzen, bat-batean zugana iristen da eta desinformazio bat sortzen dizu: “zergatik datorkit hau niri?”. Mandatu sekretuak bezalakoak dira, zaharkituak, denboran zehar datozenak, nire ondo-ondoko belaunaldietan barna. Eta belaunaldietako informazio hori guztia hementxe kontzentratzen da, leku honetan. Denbora eta espazioa lotuta baitaude (horixe da honen guztia alderdi kuantikoa). Orduan, ni bat-batean gauza asko eta asko gertatu izan diren leku honetara etortzen banaiz, denbora espazial honetantxe ere badaude orduko gertakari haiek guztiak. Eta ezagun egiten zaizkit, nire familiarik jaso dudana sistemaren informazio bati lotuta daudelako.

Zuen eskolan sustraiak erreskatatzen ari zarete, ikasleen herenaitonetaraino joanez.

Sustrairik gabe, hegorik ez dago. Eskolatik erreskatatu egin behar dira familiaren historia eta testuinguruaren historia.

Euskal Herrira etorri aurretik Bernardo Atxagaren nobela oparitu zidaten, "Soinujolearen semea": Amerika-ko Estatu Batuetara joandako gizon baten istorioa da, eta Obaba utzi du, bere sorlekua. Eta alabentzat idatzita uzten du harentzat garrantzitsua izan den guztia, ez dezaten ahantz. Izugarri polita egiten zait hori, ederra oso.

Zeure identitatearen parte bat transmititzera iristen ez denean, horrek suposatzen duen galeraz kontzientzia izatea da gakoa, ezta?

Atxagaren liburuarekin negar egiten nuen pertsonaiak kaxa bakoitzean hitz bat sartzen zuenean: hurrengo belaunaldiek errepikatuko ez zuten hitz bakoitza sartzen zuen kaxetan, hilku txak balira moduan.

Gugan hizkuntza konkistarekin galdu zen, baina oraindik ez diogu hileta erriturik egin, ez dugu hori benetan gertatu zela onartu, alegia. Galerak ere aitortu egin behar dira, zerbaiten existentzia onartzea zerbait horri iraupena ematea baita, eta izatea. Eta ez badugu onartu hizkuntza bat hartzeko beste bat galdu genuenik, hau ere ezin dugu hartu: Mexikon ez daukagu hizkuntzarekiko hurbiltasunik, eta hori, besteak beste, irakurketa kulturaren sumatzen den faltan islatzen da.

Ilusio handia egiten dit neure burua elkarriketa honetan ikusteak, justu Pedagogia Sistemikoaz hizketan, euskaraz (badirudi euskarazko hitz hauek nigandik sortu direla). Hau nire fantasiarik onenetan ere ez nukeen imajinatuko!

Bestalde, kosta egiten zaigu gure iraganeko, gure sustraietako alde iluna onartzea.

Nire arbaso espainiarrek nire arbaso indigenak konkistatu zituzten. Eta

pentsa nola esan dudana. Zeren ni, bi horiena naiz. Nola ukatu historiaren zati bat.

Lantegi batean, Amerikarekin adiskidetzeko mugimendu bat egiten ari ginen. Bikote euskaldun batek geldirik jarraitzen zuen, eta esan zidaten "ez, guk ez dugu zerikusirik zu egiten ari zaren horrekin". Esan nien: "Ez duzuela zerikusirik nirekin? Asko sentitzen dut, baina baietz esan behar dizuet! Nire etxeko erreza zabaltze hutsarekin, ikusi egiten zaituztet-eta!" (nire etxe parean lau banku daude, Bilbao Vizcaya-koak). Euskaldunek kolonizatuta gauzkate-eta!

Pedagogia Sistemikoaren zutarrak bat hauxe da: onartu eta esan ahal izatea "bai, ni hortik nator, hori da nire arbasoek egin zutena". Pedagogia Sistemikoa horixe da: nire familiaren historiari abiatuta, nire testuinguruaren historia ikastea.

Zehatzago azalduko al zenuke zer den Pedagogia Sistemikoa?

Familia sistemak, eskola sistemak eta gizarte sistemak transmititzen dutenaren bidez irakasten duen pedagogia da, hiru sistemak elkartuz. Irakasleok askotan ikaslea testuinguru batetik aterako bagenu bezala ikusten dugu, eta gelan sartzen dugu, non gure egiteko bakarra curriculumeko edukiak irakastea den. Eta ez da hala. Haurrak familia testuinguru bat dakar, gehiago determinatzen duena. Gure txikiak eskolan adieraziko dute, ahal bezala, familiako problematika, murgilduta dauden emozioak. Eurak dira familia sistemen itzultzaile onenak.

"Sistemaren itzulpena" aipatu duzu. Horixe da "Konstelazioen" metodoaren bidez lantzen dena. Azal ezazu zer diren "Konstelazio Terapeutikoak".

80ko hamarkadan Bert Hellinger-ek deskubritu zuen gutako edonork, prest bagaude, gaitasuna dugula sistema bateko informazioa hartu eta adierazteko. Alegia, esate baterako, zuk familia sistema jakin bat simula zenez-



ke, pertsona bakoitzak rol bat har de-

zake, eta espazioan koka ditzakezu (parte hartzen duten pertsona horiek ez dute sistema horretako benetako partaide izan beharrik). Ordezkariei, prest agertzen badira, beren kasa jokatzeko uzten zaie, hala, sistema horretan inplizituki dauden sentimenduak adieraz baititzaizkete. Informazio zirkuitu bat eraikitzea bezalaxe da, horren bidez familia sistema zehatz batean dagoen informazioa antzemateko.

Bert Hellinger-entrenatzen hasizen, sistema bakoitzean zer gertatzen ari zen interpretatzeko, itzulpena egiteko, ulertzeko, eta bost alderditan erreparatu zuen: gure familian nola begiratzen diogun heriotzari, bizitzari, patuari, kulpari eta sufrimenduari.

Metodo hori eskola sisteman aplikatu duzue. Zertan bereizten dira esku-hartze pedagogiko horiek esku-hartze terapeutikoetatik?

Mugimendu pedagogikoen bidez ez dugu inor sendatu nahi; egoera aurkeztu nahi dugu, ikusi non egon daitekeen arazoa (hainbat hipotesi eginez), arazo horretatik ikasteko eta zein eratan esku har genezakeen ikusteko.

Arazoa inplikaturako alde guztien aurrean jartzen da, nolabaiteko distantzia batera. Izan ere, arazoa ez da ikaslearena; bereizi egin behar dira arazoa eta haurra. Guztion begirada soluzioan

// Konstelazioen bidez zuk familia sistema jakin bat simula zenezake, pertsona bakoitzak rol bat har dezake, eta espazioan koka ditzakezu. Ordezkariei, prest agertzen badira, beren kasa jokatzeko uzten zaie, hala, sistema horretan implizituki dauden sentimenduak adieraz baititzakete.



zentratu behar da, eta ez kulparen banaketan. Inplikaturako alde guztiak, bakoitza dagokion lekutik, arazoari begira daudenean, arazoa konpondu egiten da. Begirada zabaltzea da gakoa, eta jakitea zein den norberaren lekua.

Irakasle gisa gure lekua zein den jabetzen garenean, batzuetan arazoa gure esku ez dagoela onartu beharrean izaten gara, eta benetan guk ezingo diogula konponbiderik eman. Baina hori onartzeak "utzikeria" eman dezake, irakaslearen "inplikaziorik eza".

Baina errealitatea hori da, ezin dugu konpondu gure eragin esparrutik kanpo dagoen arazo bat. Eskolak ez gara instituzio terapeutikoak, ez gaude haurrak sendatzeko; gu irakasteko gaude. Irakasle gisa dugun funtzioa eta gure identitatea desitxuratzen baditugu, ahitu egingo gara, eta "burn out" sindromean erori (irakasle errearen gaitza), amaren lekua bete nahi dugulako, eta lagunarena, eta terapeutarena, eta orientatzailearena... Eta alferrikako ahalegin horretan erre ditugun energiak ez dizkigu inork itzuliko.

Ikasi dudana gauzarik garrantzitsuenetako bat hauxe da: neure buruari ez esleitzea ez dagozkion "mirariak". Orain badakit ezin dudala deus egin halakoen aurrean, beraz egin behar dudana egingo dut, eta kito. Eta horri esker, azken urteotan lana erruz egin dut denbora askoan ezin heldu izan dieran aferetan. Baina beti galdera bera egin behar diozu zeure buruari: hau badagokit? Pedagogia Sistemikoaren lema batek halaxe dio: "hezteko, nor bere lekuan bego".

Askotan uste dugu pertsona bati eusten dion zutarrria garela, nahiz eta benetan hala ez izan.

Hori bera gertatzen da seme-alabekin, gurasoen ardura hartu eta energia ahitzen dutenean: gurasoek ez dute egingo beren arimaren barne-barnetik nahi ez duten ezer. Gurasoak bizirik gelditzen dira bizi nahi dutelako, ez



guk eusten diegulako.

Nire seme-alabei esaten diet, "zuek ez zarete nire bizitzaren arazoia. Nire inspirazioa zarete, baina ez arazoia. Zuen burua ez jo hain-hain garrantzitsutat". Zer harri astuna seme edo alaba batentzat gurasoen bizi arazoia izatea! Beldurtzekoa da!

Eta arazoa "badagokigunean"? Irakasleok nola bete behar dugu gure lekua?

Gure eskura dauden arazoei erantzuteko, irakaslearen betebeharra Mary Poppins-ena bezalakoxe maletaxo bat izatea da, errekurtsos betea, eta gelara iritsi eta bat ateratzea, eta beste bat, eta beste bat... ezin baikara erreminta murriz batekin gelditu. Eta asko hartzen duenak soilik eman dezake. Hartzea, umiltasunezko ekintza bat da. Gaitzen ez den irakasleak, etengabe eguneratzen ez den irakasleak, ez dauka gelan jarraitzerik.

Non jartzen du begirada Pedagogia Sistemikoak? Zertarako baliatzen da metodologia hau eskolan?

Bizitzara hurbiltzeko. Orain sumatzen dut akademikoak zenbateraino dauden urrunduta bizitzatik, eta zer zaila izan den eurentzat bizitzatik urruntzea.

Kongresu batean, terapeuta batek hamar minutuan esan zuen, argi bezain simple, funtsezkoa dena. Hitzaldirako jarri zioten gaia hauxe zen: "gaixoaren eta terapeutaren arteko harremana". Honako hau esanez hasi zen: "nola nahi duzue nik harremanaz hitz egitea, ez badakit terapeuta moduan baino ha-

rremanak izaten? Inor arazorik gabe baldin badator nigana, jada ez dakit harekin harremana ezartzen”. Kontatu zigun nola bezero batek (bere aholkuei jarraituz beretzat denbora gehiago hartzen hasi zenak), museoan pasatako arratsalde bat azalduz, pintura zoragarri bat xehetasun handiz deskribatuz; eta nola astebetera harri eder batzuekin joan zitzaien bezeroa, basoko paseoa hartu zituenak propio beretzat. “Eta nik inbidia sentitu nuen” esan zigun terapeutak: “zenbat denbora ari naiz alferrik galtzen hemen, hainbeste orduz eserita, bezeroarekin erlazionatzen, bizitza hor kanpoan dagoen bitartean?”.

Irakasleok gelara eramaten dugun indarra bizi-poza da. Bizitzari begiratzeko eta bizitzaren zerbitzura egoteko pasioa (nork bere estiloan adierazita), hurrengo belaunaldien zerbitzura egoteko. Eta indar hori, gure gurasoei begiratuta hartzen dugu.

Ba al dakigu gure gurasoei begiratzen?

Ahaztu egin dugu, eta orain gure belaunaldioi dagokigu itzuli eta begiratzeko ikastea. Bat-bateko belaunaldia bagina bezala da. Ez dugu begiratzen daukagun harremana, eta problematikak ez dauka zerikusirik aitatasun/amatasunarekin, baizik eta semetasun/alabatasunarekin: nola naizen alaba.

80ko eta 90eko hamarkadetan psikologiaren tematika guztia zen “maita ezazu zeure burua”, “zu zara egin dezakeena”, baina “bakar-bakarrik”, zeren “nik ez dut inoren beharrik”. Alaskaren abestiak zion legez, “nori axola nik egiten dudanak, nori axola nik esanak, ni horrelakoa naiz, hala jarraituko dut, eta ez naiz sekula aldatuko...”. Jakina denei axola zaiela zuk egiten edo esaten duzuna. Eta zuk aldaketa txiki bat egiten baduzu, sistema aldatu egiten da.

Zergatik galdu dugu gurasoekiko begirada?

Gertakari historiko bat da. Gerraosteak oso zauri sakona utzi zuen ondo-



rengo belaunaldiengan: horientzat zaila da itzuli eta gurasoei begiratzeko, helduengan sumatzen dutelako gertatu zenaz sentitzen duten lotsa, eta beren larruan bizi izandako galera guztiarengatik sentitzen duten mina. Seme-alabekez indute min horrekin egon, eta joan egin behar dute. Eta halaxe behar zuen (ni belaunaldi horretakoa naiz).

Eta nora joan ginen? Zein izan zen gure erreferentzia puntua? Unibertsitatea. Unibertsitateak aitatasun/amatasunaren oso zati garrantzitsua ordezkatu du. Zuk jada ez duzu esaten “halakoren alaba naiz”, baizik eta “halako ikasi nuen, halako unibertsitatean”. Erreferenteak teorietan bilatzen dituzu, ikasketetan. Eta zure parekoa hasten zara erreferentetzat hartzen. Irakasleei ere begiratzen diezu, baina ez gizaki mo-

duan, baizik eta ezagutza bat emango dizun baten moduan. Irakasleek ez zioten beren buruari onartzen ikasleekin gertuko harremanik izatea, beraietzat gehiegi zelako, ikasleekin ezin zuten.

Semetasuna/alabatasuna aipatu duzu. Zuk asmatutako termino bat da, eta gurasoekin dugun problematikaren gakoa da zuretzat.

Posible da zu ama ezizatea (edo aita ez izatea). Baina seme edo alaba beti izango zara. Eta nola daramat alabatasun hori? Seme-alabok beti ari gara pentsatzen nola izan behar luketen gure gurasoek, eta pentsatzen ez duguna da nola izan haurride. Ikuspuntua erabat aldatzea da, eta galdetzea: nola begiratzen diot nire aitari, nola nire amari?

Eskasiaren pedagogia bat dago.

//
**Irakaslearen
betebeharra Mary
Poppins-ena
bezalakoxe maletatxo
bat izatea da,
errekurtsoz bete, eta
gelara iritsi eta bat
ateratzea, eta beste
bat, eta beste bat...
ezin baikara
erreminta murriz
batekin gelditu. Eta
asko hartzen duenak
soilik eman dezake.
Hartzea,
umiltasunezko ekintza
bat da.**



Gure seme-alabei haxe erakusten diegu: “zure amonak inoiz ez zuen nigatik hau eta hura egin. Eta ni, gogor saiatu naiz zuei ematen faltan eduki nuen guztia, eta horrela eskertzen al didazue?”. Alegia, guri falta izan zaigun dena ikusten erakusten diegu seme-alabei, eta ez eman diegun guztia. Alderantziz behar luke: seme-alabek ikus dezatela eman dieguna; erakutsi eta esan behar diegu “zure amonak hau dena eman zidan, eta horri esker nik beste hau lortu nuen eta zuei ematen dizuet”. Erakutsi beren sustraiei begiratzen. Pedagogia Sistemikoa ugaritasunaren pedagogia da, eman diguten guztiarena. Eta horrekin, orain guri dagokigu berria den zerbait egitea, urratsak egitea, espazio eta denbora honetan konponbide izango den zerbait egitea.

Horrek eskatzen du diren bezalaxe begiratzea zure gurasoei, beren alde ilun eta alde onenarekin, eta osoki hartzea. “Bai, haxe da ni zugandik naizena, eta hau hartu egiten dut zugandik” esatea. Eta ez duzu bere alderik ilunena baztertzen (horixe da justu egin ohi duguna), zeren alde negatiboa baztertzen baduzu, hori izango baita azkenean gehien barneratuko duzun alde. Aldiz, zure ama bere alde on eta txar guztiekin hartzen duzunean, jada ez daukazu txarra errepikatu beharrik, jadanik eginga baitago (zure amak jada egin zuen). Seme-alabok erdi eta erdi gara, erdia amarena eta erdia aitarena dugu. Eta gurasoak ez bezalakoak izaten saiatuko bagina ere, ez genuke lortuko.

Ikus dezagun nola izan garen seme-alaba hamarkadaz hamarkada. Nerabezaroari buruzko ikerketa bat egin zenuen. Zer nerabe sortu ditu hamarkada bakoitzak?

50eko hamarkadari “Angustiaren hamarkada” deitu nion, gerraostearen fruitua. Bonba atomikoen ostean, gazteak angustiaz bizi ziren, ez zekiten planetak iraungo zuen ere. Oso hamarkada zaila izan zen.

Hurrengoari, 60koari, “Konfrontazioaren hamarkada” esaten diot: gazteek jada aurre egiten diote autoritateari,

“honek ezin du horrela jarraitu” esanez. Gurasoek ez zeukaten egiterik, gerrak ahulduta zeudelako, eta gazteek egin zioten aurre gurasoen orde.

70ekoa “Dispertsioaren hamarkada” da: gazteok ezin garenez elkartu, dispertsioan adierazten gara. Eta hasten gara argi ez ikusten zer nahi dugun.

80koa, berriz, “Apatiaren hamarkada” da: “nori axola nik egiten dudanak, nori axola nik esandakoak”, eta abar.

Eta 90eko hamarkadan jada nerabeek energia gehiago dutela ikusten da, hain zuzen 60ko hamarkadan gazte izan ziren gurasoengandik datozelako. Baina “Polaritatearen hamarkada” da: gazte batzuk oso kontzienteak eta aktiboak dira, beste batzuk, aldiz, errealitate horren aurka daude eta hil egin nahi dute. Frustrazio handia dago. Nerabeetan hildakoen kopuruak gora egiten du (istripuz, drogen eraginez, suizidioz).

Eta zein izango litzateke 2000-2010eko hamarkadaren definizioa?

“Genero borrokaren hamarkada”: niri emakume gisa, zuri gizon gisa, zer dagokigu hemen egitea? Guk oraindik ere argiago geneukan, baina orain rola da borrokaren arrazoa. 90eko hamarkadako polaritate hartan biolentzia asko adierazten zen, 60-70eko hamarkadako gurasoengandik zetozelako, eta bazekarten biolentziaren hazi hori. Baina 2000. honetan, beste testuinguru batean gaudenez (gatazka jada ez da ezkertiar edo eskuindar izatea), nola adieraziko da biolentzia hori? Generoaren bidez.

Zer da une honetan gehien kezkatzen zaituena? Non jarria duzu begirada?

Datozen belaunaldiei begiratzen diet, mundu globalizatu batean bete-betean sartuko direnei. Kultur aniztasun horretarako prestatu egin behar ditugu: prestatu, hurrengo belaunaldiak gure bidez begiratu ahal izan dezan.

Elkarte bat sortu berri duzu: “50 urte eta gehiagoko irakasleena” izena du.

Gaztetatik beti pentsatu izan dut nola eman eskolak hobeto, nola gozatu, nik martir espiriturik ez baitut. Baina ikusten ditut martir diren irakasleak, eskailerak maantso-maantso igotzen dituztenak, lurrera begira, eta 35 urterekin bizitzaz hain nekatuta dirudite... Nire kezka hauxe da: guk, irakasle zahartuek, nola erakutsiko diegun belaunaldi berriei irakasle izatea zoragarria dela, eta nola zainduko ditugun irakasuntza bizi dezaten. Zeren irakasle bat ona da, bere lana ondo egiten duenean

eta ondorengo belaunaldiak zaindu egiten dituean, haiek ere irakasle onak izan daitezten. Irakasle batek hurrengo belaunaldiak ahaztu egiten baditu, 5 jartzen diogu.

50 urte eta gehiagoko irakasleok antolatu egin gara, irakasle berriak irakaskuntzarekiko maitasunean eta harremanaren balioetan hezteko. Elkar-atea berria da, eta ikusiko dugu zer ematen duen; baina segur aski mundua mugituko du.



“ Hezteko, nor bere lekuan bego ”

Amak aita albora uzten duenean

“Semeek aitarekin ikasten dute gizon izaten, eta alabek amarekin emakume izaten. Gizonek tratatu zurrunagoa izan ohi dute semeekin, gogorragoa, zailagoa, eta semeek aurre egiten diote aitari. Eta egoera horretan, ama nola sartu ohi da tartean, zer esaten du? “Ez umea horrela tratatu, uler ezazu, txikia da. Jakina, egun osoan berarekin ez zaudenez, ez dakizu zer gertatzen zaion”. Amok erakutsi nahi diegu aitei nola tratatu behar duten bere semea, gizona ez dugulako aitatzat hartzen, baikik eta handitzat, gogortzat, haurarentzat mehatxu moduan. Pentsa, semea aita-gandik defendatzen ari da ama!”.

Semea edo alaba jartzen dugunean aitaren edo amaren lekua betetzen

“Haurarentzat hori jasatea oso zaila da, ezin dituelako helduen arazoak konpondu eta bere gurasoak banantzen ari delako”.

Irakasleak amaren edo aitaren lekua bete nahi duenean

“Horixe da gure arriskurik handiena, batez ere maisuentzat, askotan aitaren rola baita etxean ahul dagoena, eta mutikoei aita bat eskatzen baitute. Irakasleok saiatzen gara gurasoaren lekua hartzen hauraren arazoari erantzuteko; baina ahitu egingo gara, eta inoiz ez dugu leku hori betetzerik lortuko”.

Gurasoek irakaslearen lekua hartzen dutenean

“Gurasoak ez dira akademikoak: ez digute esan behar nola irakatsi behar dugun. Eta oker ari garen kasuan, irakasleok baditugu beste instantzia didaktiko eta pedagogiko batzuk eta horietara jo behar dugu, eskola delako estrategiak diseinatu behar dituen irakasleak gelan arrakasta izan dezan. Gurasoa datorkidanean, esanez, “halako irakaslea ez da ondo ari”, nire erantzuna hau izaten da: “mila esker jakinaren gainean jartzeagatik, eta orain honetaz gu arduratuko gara”.

Terapeutak eskola aldatu nahi duenean

“Terapeutak ezin du planteatu irakasleak eta eskolak aldatu egin behar dutela ikasle jakin bati begira funtziona dezaten, hori ez baita posible. Ikasle asko dira, eta ikasleak gai izan behar du eskola horretantxe lan egiteko, dagozkion irakasleekin”.

Harrigarria izan zen. Nire lagun minaren ahizpa Dorre Bikietan zen irailaren 11ko hartan, eta salbatu egin zen. Berak kontatuta dakit.

Medikuntza kongresuan zegoen, hegazkin kolpea baino hamar bat pisu beherago. Hegazkinak jo, erai-kinak dar-dar egin, eta argia joan zen. Argia etorri zenean esan zieten (kontroletik): “ez dadila inor mugitu, ez da-eta ezer gertatzen”. Hegoamerikako beste mediku bat ere bazen han, eta “larrialdiko eskailerak” ikusi, eta han abiatu ziren, ziztu bizian biak. Gainerako denak, geldirik; jendeak egoteko esaten zien, ez zela ezer gertatzen. “Eta haiek sinetsi!”, esaten zidan lagunak.

Dena emanda egin zuten korrika. Nire laguna aurretik zihoan, eta azken-erako ez zuten kidea ikusi. Dena gainera etorri zitzaion, dena hauts laino, baina bizirik atera zen.

Estatubatuarrek ez zuten arriskuaren aurrean erreakzionatu, honakoa sinesten dutelako: “gure gobernuak konponduko du. Zuek lasai, horretarako ordaintzen dituzue-eta zergak”. Mutil batek halaxe esan zuen Louissianako urakanaren ostean: “hau ezin zait niri gertatu!”. Beste mentalitate bat da: gu “hirugarren mundua” gara, guri edozer gerta dakiguke, prest gaude edozertarako, eta badakigu elkari lagundu beste biderik ez dugula.

Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan (eta III)

Hizkuntzen trataera ikasle etorkinekin

**Amaia SESMA, Pilar
HERNÁNDEZ eta Ima ORTEGA**
GASTEIZKO BERRITZEGUNEN KULTURA ARTEKO
BATZORDEKO KIDEAK

Hirugarren eta azken atal honetan Haur Hezkuntzan garrantzi handia duen beste esparru bat lantzeraz goaz: hizkuntzen trataera. Haur etorkinekin nola eta zer landu aztertu nahi dugu. Hiru artikuluetan esandakoa aintzat hartuz, amaieran ondorio batzuk zerrendatu ditugu.

Haurrak, eskolan hasten denean, ama hizkuntzaren garapenean bide bat egin du: gai da adinari egokitutako mezuak ulertzeko, eta ahozko hizkuntza erabiltzen du. Hizkuntza familia giroan ikasten ari da, eta anaia-arrebak ditu hizkuntza lantzeko solaskide, etxeko nagusietatik aparte. Etxeko elkarrizketak banakakoak izan ohi dira, haurrari zuzenduak, eta askotan haurrak berak markatzen du elkarrizketa nondik abiatu.

Eskolara heltzen denean haurrak egoera berrira egokitu behar du: bera ez da elkarrizketako protagonista nagusia, askori hitz egiten dion pertsona bati entzun beharko dio, baina, aldi berean, testuinguru sozialak ugarituko



dira, imitatzeko eta esperimentatzeko egoera handiagoak eta berriagoak sortuko.

Hiztun berriekin topatzeak besteen hizkuntza ulertzen saiatzea eskatuko dio haurrari. Ereduak imitatzen hasiko da. Horrela, joko sinbolikoa estimulu ezin hobea bihurtzen da, haur bakoitzaren hizkuntza gaitasuna garatzeko. Gainera, gure hezkuntza sisteman, haurrak hemengo bi hizkuntzak ikasi beharko ditu.

Prozesu hori gertatzeko Haur Hezkuntzako giroak eta jarduerak aukera ezin hobea eskaintzen dute. Ikasleek hainbat jarduera aberatsetan parte hartzen dute, denboraren antolamendua oso egituratuta dago, eta ikasleek erraz "asmatzen" dute zer egin behar duten. Baldintza horiek hoberenak dira hizkuntza ikasteko, ikasleek ondo ulertzen dutelako zer egin behar duten eta

aukera dutelako ikasten ari diren hizkuntza hori praktikatzeko. Gainera, beste etapetan ez bezala, askotan, talde txikitik lan egiten da eta, horrela, ikasle guztiek tarte bat izaten dute hitz egiteko.

Orain, beste herrialde batzuetako haurrak ditugu ikastetxeetan. Guretzat egoera hori berria da. Matrikula kopuruari erreparatzen badiogu, esan dezakegu kalean gaur egun ikusten dugun kultur eta hizkuntz aniztasuna geletara heldu dela.

Haur Hezkuntzan lan egiteak asko erraztuko digu lana. Goian aipatu dugunez, testuinguruaren laguntza izaten da gelan egiten ari dena interpretatzeko; beraz, ikasle berriak uler dezake egiten ari garena, hizkuntza jakin gabe. Gainera, beste ikasle gehienak ere hizkuntza berria ikasten ari dira.

Etaparen honetan ez da programa be-

rezirik prestatu behar kanpotik etor-
tzen zaizkigun ikasleentzat, baina ho-
rrek ez du esan nahi hainbat erabaki
hartu behar ez direnik.

Urteak dira murgiltze programetan
lan egiten hasi ginenetik, eta urte horie-
tan guztietan euskara –kasu gehiene-
tan– nola irakatsi dugun eta ikasleek
nola ikasten duten hausnartu dugu.

Murgiltze programetan zer ikasi
dugun gogoratuko dugu aurretik; gure
esperientzia oso baliagarria baita –ez
gara hutsetik abiatzen–; baina, bestetik,
interesgarria da ikasle atzerritarrekin
esperientzia duten herrialdeetan egin
diren ikerketek zer dioten jakitea. Biga-
rren zatian horixe azalduko dugu.
Bukatzeko ikasle horien egoera
–hizkuntzei dagokienez– aztertuko
dugu.

Murgiltze programek irakatsi digutena

1.- Ulermena hizkuntzaren ikas- te prozesuaren giltza da

Ikasleek ondo ulertzeko honako
estrategia hauek erabiltzen ditugu ira-
kasleok:

A) Testuinguruari lotutakoak:

Testuinguruaren laguntza aurrean
izan.

Irudi bidezko laguntza eman.

Testuinguruan errotutako egoerak
proposatu.

B) Irakasleen mintzairari lotu- takoak:

Poliki hitz egin.

Errepikapenak egin.

Elkarrizketak moldatu: gako hitza
esaldiaren hasieran esanez, esaldia zati
laburretan zatituz, hitzak errepikatuz...
Adibidez: *Zure anaia... zuk anaia txi-
kia daukazu, ezta? Zenbat urte dauz-
ka zure anaia?*

Egin behar denari buruz pistak
eman: *Atzoko ipuina, bai? Gogoratzen
duzue? Ipuin hori irakurriko dugu?...*

Galderak egin ikasleak ulertu duela
egiaztaatzeko.



Lanari buruzko orientabide argiak
eman.

C) Irakaslearen jarrerari lotu- takoak:

Keinu ugari erabili: “antzerkia
egin”.

Ikasleari zuzenean hitz egin, aurpe-
gira begiratu.

Ikaslea esaten ari dena arretaz
entzun.

2.- Hizkuntza komunikatzeko tresna da, eta hizkuntza besteekiko harremanetan ikasten da

Denen arteko eta taldeko elkarriz-
ketetan lan egiten dugun bitartean, hitz
egiteko beharra eta parte hartzeko
nahia sortzen da. Egoera horietan hiz-
kuntzaz baliatzen gara komunikatze-
ko, eta hizkuntza ikasten dugu. Gaine-
ra, elkarrekin negoziatu daiteke esa-
nahia, ulertzen ez dena argituz.

3.- Faktore afektiboek garrantzi handia dute hizkuntza bat ikasteko

Garrantzitsua da ikaslea ohartzea
kontuan hartzen dugula. Ikasleak
“kontaketa” dizkigun gauzei errepara-
tzen diegu eta arretaz entzuten diogu,
ondo dakigulako entzuleak interesa
azaltzen ez duenean kontaktatzeko gogo-
a desagertu egiten dela.

Gainera, ikasleak hizkuntza berrian
egiten duen ahalegina txalotzen eta ba-
loratzen dugu.

4.- Ama hizkuntzak garrantzia du bi arlotan: ikaste prozesuan eta arlo afektiboan

**Harreman sozialeta-
rako hizkuntzan ondo
moldatzeak ez du esan
nahi hizkuntza ikasi
duenik. Harremanetara-
ko hizkuntza eta
hizkuntza
akademikoa ez dira
gauza bera.**

Ama hizkuntza geroko ikaskuntzen
oinarria da, eta ondo garatutako ama
hizkuntzak laguntzen dio haurri bi-
garrena ikasten, ama hizkuntzan gara-
tutako gaitasuna beste hizkuntza bate-
ra pasatzen baita. Ama hizkuntzan gaita-
suna ona duten ikasleek hobeto ikas-
ten dute bigarren hizkuntza.

Ama hizkuntzak ikaste prozesuan
daukan garrantziaz aparte, arlo afekti-
boa ez da ahaztu behar, hori baita nor-
beraren nortasun ezaugarri nagusietako
bat. Ikerketek diote, gainera, haur
batek 3 urtean bere ama hizkuntza gal-
dezakeela, lantzen ez bada. Galera hori
gertatzen denean, gurasoekin duten lo-
tura apurtzeko arriskua dago, ezin bai-
tira ondo komunikatu elkarrekin.

5.- Aurretiko ezagutzaren ga- rrentzia

Ezagutza berria dakigunaren gai-
nean eraikitzen dugu, gure eskemak
berriro eraikiz, eta ikasten duguna
garapen hurbileko eremuan gertatzen
da. Haur bakoitza bere kulturaren eta
esperientzian oinarritzen da gauza
berriak ikasteko.

6.- Familiaren zeregina funtsez- koa da ikasleen heziketan

Familiaren eta eskolaren arteko el-
karlana oso garrantzitsua da haurren
ikaste prozesua ondo bideratzeko.

Beste herrialdeetan egindako hainbat ikerketek esaten digutena

1.- Hizkuntzaren bi erabilera bereizi behar ditugu eskolan: harremanetarako hizkuntza / hizkuntza akademikoa

Gelako elkarrizketa arruntetan parte hartzeak, erantzunak emateak edo eskolei "jarraitzeak" ez du esan nahi hizkuntza ikasi edo menperatzen denik. Ikasleek "fatxada linguistiko" bat agertzen dute: azalean agertzen duten hizkuntza gaitasuna ez da benetan dutena.

Harremanetarako hizkuntza: elkarrizketa arruntetan, bizitzan komunikatzeko erabiltzen duguna. Hemen eta orainean zentratzen da.

Hizkuntza akademikoa: ikasteko erabiltzen dugun hizkuntza. Idazketa eta irakurketa prozesuarekin lotura du, eta ez du testu-inguruaren laguntzarik.

Hauxe da bigarren hizkuntzen irakaskuntzan sekulako garrantzia izan duen bereizketa eta, ikasle atzerriarrentzako hezkuntza programak eta ebaluazioa diseinatzerakoan, hainbat herrialdeetan kontuan hartu izan dena.

Hainbat ikerkizailerik Suedian (finlandiera hiztunekin), eta Kanadan eta AEBn ingelese ikasten ari ziren ikasle ebaluazioak aztertu ondoren, konturatu ziren irakasle eta psikologoek hauxe pentsatzen zutela: ikasle bat ingelesez hitz egiteko gai zenean, gaintituak zituen hizkuntza honetan zituen zailtasunak. Baina ikasle haien emaitzak ez ziren batere onak arlo akademikoan eta froga psikologikoetan. Hizkuntza berrian hitz egiten zuten, baina arlo akademikoan zailtasunak zituzten.

Haurrak, eskolara heltzen denean, nolabait elkarrizketarako gaitasuna garatua du ama hizkuntzan. Eskolan hizkuntza akademikorako gaitasuna lantzen da gehienbat. Gaitasun horrek eskolako hizkuntza islatzen du, eta ikasle batek hizkuntza mota hori menperatu behar du arrakasta izateko.

Gure kasuan, Araban, ikasleek bigarren hizkuntzan bai harremanetarako hizkuntza, bai hizkuntza akademikoa garatu behar dituzte.

Pauline Gibbonsek¹ antzeko bereizketa egiten du eskolako hizkuntzaz -- jolastokiko hizkuntza/eskolako hizkuntza-, eta oso ondo azaltzen du erabilera horien arteko desberdintasuna:

"Jolas tokiko hizkuntzaren bitartez egiten dituzte lagunak haurrek. Harre-

man sozialak garatzen eta mantentzen dituzte eguneroko ekintzetan eta jolasetan parte hartzea ahalbidetzen die. Normalean, aurrez aurreko harremana izaten da, eta ondorioz, ingurune fisikoaren eta bisualaren, eta gorputz eta keinuen hizkuntzaren menpe egoten da. Hizkuntza mota horretan jarioasuna lortzea arte garrantzitsua da; hori gabe jolas lekuko bizitza sozial normaletik at geratuko litza-teke haurra.

Haatik, jolas lekuko hizkuntza eta irakasleek gelan erabiltzen dutena oso desberdinak dira, eta ikasleek hori ikas dezaten nahi dugu. Jolas tokiko hizkuntzak ez dauka zerekusirik matematikan, gizarte zientzietan edo natur zientzietan erabiltzen denarekin. Normalean, jolas lekuan ez da horrelakorik aditzen: angelua bost gradutan igotzen badugu, zirkunferentzia bi zatitan moztu dugu. Goi mailako pentsamenduko trebeziekin erlazionatutako hizkuntzarik ere ez du eskatzen, hots, hipotesiak egitea, ebaluatzeta, ondorioztatzea, orokortzea, aurrerata edo sailkatzea. Halere, horiek dira ezagutzaren ikaskuntzarekin eta garapenarekin erlazionatuta dauden hizkuntzaren funtzioak; curriculumeko arlo guztietatik sortzen dira, eta horiek gabe ezin da osatu haur batek arlo akademikoetan eduki behar duen ahalmena".



¹ Cit. CUMMINS, J: *Lenguaje, poder y pedagogía*, Morata, Madril, 2002.

HARREMANETARAKO HIZKUNTZA	HIZKUNTZA AKADEMIKOA
Hizkuntzaren jabekuntza testuinguru sozialetan	Hizkuntzaren jabekuntza testuinguru akademikoetan.
Etxean ikasten da. <i>Hemen eta orain</i> printzipioan oinarritzen da. Testuinguruaren laguntza handia dauka. Esanahia negoziatzen daiteke.	Eskolan ikasten da. Hainbat erregistro eta forma dauzka. Ez dauka testuinguruaren laguntzarik. Esanahia testuan dago.

Nahiz eta Haur Hezkuntzan harremanetako hizkuntzan oinarritu gure lana, hizkuntza akademikoan lehen urratsak ematen hasten gara: hainbat testu mota lantzen hasten gara, eta horietan hizkuntza akademikoaren ezaugarriak aurkitzen ditugu.

Hizkuntza akademikoaren ezaugarriak identifikatzea garrantzitsua izan daiteke laguntza mota prestatzeko: ondo ulertzeko tresnak eskainiz, arreta berezia emanez hainbat egiturari...

2.- Bi urte nahikoa du ikasle batek elkarrizketa arruntetan hitz egiteko, parte hartzeko aukera baldin badauka; baina 5-7 urte behar ditu hizkuntza akademikoan trebatu eta bere kideen maila lortzeko

Ikasle berriak gure artera heldu eta epe motzean elkarrizketetan parte hartzen hasten dira, eta badirudi oso azkar ikasten dutela hizkuntza. Hori egia bada ere, kontuz ibili behar da, goian aipatu den moduan, harreman sozialetarako hizkuntzan ondo moldatzeak ez duelako esan nahi hizkuntza ikasi duenik.

3.- Adina da eskola arrakasta ziurtatzen duen aldagai bat, baina ez da bakarra

Ikerketek² diote ikasleak herrialdera heltzean duen adina garrantzitsua dela, baina ez da garrantzitsuenetakoa. Ikerketa horietan aurreko eskolatzea aipatzen da arrakastarako lehen eragile artean. Ikasle batek arrakasta izan dezake, jatorrizko herrialdean irakurtzen eta idazten ondo ikasi badu, eta



hizkuntza akademikoaren oinarriaz jabetu bada. Izan ere, hizkuntza batetik bestera transferentziak egin ditzake.

4.- Familiaren zeregina funtsezkoa da ikasleen heziketan

Badakigu gurasoen laguntza ezinbestekoa dela haurren ikaste prozesuan. Baina irakasleok eta gurasoek "laguntza" hori ez dugu modu berean ulertzen. Hori areagotu daiteke beste kulturetako gurasoekin elkartzen garen. Guraso batzuek pentsatzen dute eskolarekin lotutako arlo guztiak irakasleari dagozkiola soilik, alegia, eskolarekin zerikusia duen guztia irakasleak landu beharko duela. Irakasleok, berriz, eskolako heziketan parte hartzea eskatzen dugu.

AEBn ikerketak egin dira familiaren eta eskolaren rola aztertzeko. Ondorioetan³ adierazten denez (Hakuta

1997), ekintza hauek laguntzen diote haurari bere heziketa prozesuan: kontrola, komunikazioa, motibazioa, babesa. Halere, gurasoek horrelako laguntzak ematen dituztenean, irakasleoi ez zaigu hori nahiko iruditzen, eta jorera dugu ikasleen irakaskuntzan gurasoek ez dutela behar beste parte hartzen pentsatzeko.

Badakigu gurasoen laguntza ezinbestekoa dela haurren ikaste prozesuan. Baina irakasleok eta gurasoek "laguntza" hori ez dugu modu berean ulertzen.

² COLLIER, V.: The Effect on Acquisition of a Second Language for School
<http://www.ncela.gwu.edu/pubs/classics/focus/02aage.htm>

³ HAKUTA&AUGUST: *Improving schooling for language-minority children*, National Academic Press, 1997.

Haur baten egoera ikastetxera heltzean. Hizkuntzen trataera bideratzeko iradokizunak

Beste herrialdeetatik etorritako ikasleek, gure ikastetxeetara heltzen direnean, horrelako egoerak bizi ohi dituzte, hizkuntzei dagokienez:

1.- Ama hizkuntza garatzeko prozesuan daude. Haur Hezkuntzako ikasle batek ez du oraindik ama hizkuntza menperatzen. Beraz, bere hizkuntza ikasten jarraitu behar du.

2.- Euskara ez dute ezagutzen. Eskolako hizkuntza denez, bai harreman sozialetarako, bai akademikorako hizkuntza berri bat ikasten hasi behar dute.

3.- Batzuek ez dute gaztelania ezagutzen, ez baita beren ama hizkuntza. Araban, ikasleen arteko harreman sozial gehienetan zein kaleko egoeretan gaztelania erabiltzen da; beraz, harreman sozialetan parte hartzeko gaztelania ikasi behar dute.

4.- Ingelesa ikasten hasi (edo jarraitu) behar dute, gelako gainerako kideek egiten duten moduan.

Ikastetxean, beraz, lau hizkuntza –gaztelania ama hizkuntza ez dutenen kasuan– hartu beharko ditugu kontuan hizkuntzen trataera lantzeko.

Azter ditzagun banan-banan:

1.- Ama hizkuntza

Haurrek ama hizkuntza etxean garatzen dute. Behin baino gehiagotan esango diegu gurasoei etxean ama hizkuntza erabiltzeko testuinguru desberdinetan, badakigulako ama hizkuntza ondo jakiteak bigarren hizkuntza garatzen laguntzen duela.

Horrez gain, eskolan haurren hizkuntza kontuan har dezakegu:

* Ikasleari gelan ama hizkuntza erabiltzeko aukera emango diogu.

* Irakasleak zein gelako beste ikasleek ikas ditzakete hainbat agur mota, kortesiazko formula, eta hiztegi arrunteko hitz... ikasle etorkinaren hizkuntzan.

* Ikastetxean dauden txarteletan ikaslearen hizkuntza erabil daiteke une batzuetan.

Ikaslearen hizkuntzari garrantzia

emanez bi helburu beteko genituzke: bata, ikaslearen hizkuntza baloratzea, eta beraz, ikaslea bera baloratzea; eta bestea, hizkuntza eta kultur aniztasunean hezten hastea, eta hori gelako beste ikasleei zuzendutako helburua da. Txikitatik gela barruan kultur aniztasuna izatea aukera ona da, gizarteko kultur aniztasuna modu aberatsean biziitzeko.

2.- Euskara

Arabian, ikasle berriak eskolan ikasiko du euskara, normalean bere gelako kideek egiten duten bezalaxe, ikasleak Haur Hezkuntzan hasten baitira euskara ikasten. Heldu berriak bere gelako kideak “harrapatu” beharko ditu.

Zorionez, Haur Hezkuntzako antolamendu eta jarduerak aberatsak izaten dira hizkuntza berria ikasteko. Baina horrek ez du esan nahi ezer berezirik egin gabe hizkuntza ikasiko duenik.

Gela barruan badira modu errazak hizkuntza garatzen laguntzeko:

* Arreta berezia eman gelako errutinei, egunero errepikatzen diren jardueri. Bere gelako kideek lagun dezakete horretan, haiek ohituta daudelako. Hasierako egunetan garrantzi handia emango diogu horri, gelako dinamika uler dezan.

* Talde txikietako egoerak aprobe-

txatu hizkuntza lantzeko ikasle berriarekin. Guztiekin landu den lanen bat, ipuinen bat, jolas egoeraren bat... berriro ere birpasatu.

* Ikaslea motibatu euskara ikasteko: hitz egiteko beharra sortu.

3.- Gaztelania

Kaleko hizkuntza gaztelania bada eta ikasleak ez badaki gaztelania, eskolan landu beharko dugu. Ikastetxearen hizkuntza trataeraren arabera, egoera batzuetan gaztelania landuko dugu.

Gainera, garrantzi handia du ikasleak bi hizkuntzak bereizteak: gaztelania eta euskara. Horrela izan dadin egoera eta testuinguru bidez lagundu behar diogu: egoera zehatz eta oso markatuak prestatu, gela osoarekin gaztelania lantzen bada ikur berezia erabili, beste irakasle batekin gaztelania landu talde txiki batean...

4.- Ingelesa

Bai ikasle berriekin, bai beste ikasleekin ingelesarekin lehen harremana izaten dute Haur Hezkuntzan. Ez dirudi programa berezirik prestatu behar dugunik ikasle berriarekin. Gainera, antolaketan –beste irakasle bat sartzen bada, batez ere– eta ondo diseinatutako jarduerak oso aproposak izaten dira hizkuntza ikasteko. •



Ondorioak

1.- Txiki-txikitatik beste kulturetako pertsonekin hezteko aukera izatea oso ona da norberaren garapenerako. Guztiontzat oso aberatsa da eguneroko egoeretan –eskolan, gure kasuan– beste kulturen presentzia izatea, aurrean, begi-bistan, daukagun gizarte eredu berri batera egokitzeko.

2.- Helburuak helburu, edukiak eduki, garrantzitsuena ikaslearen integrazioa da. Beste ikasleak lan horretan parte hartzera bultzatuko ditugu. Gelan gusturasenti dadin, eskolara etortzeko gogoia izan dezan, pozik egon dadin... Horretarako, batzen gaituena indartuko dugu, eta ez bereizten gaituena.

3.- Familia integratzeko bide garrantzitsua da eskola, eta Haur Hezkuntzak aukera ona eskaintzen du gurasoen artean gertuko harremanak egiteko. Irakasleok zubi lana egin dezakegu gurasoen artera hurbiltzeko.

4.- Irakasleok ulertu behar dugu familia bi kulturetan bizitzen hasten dela, eta horrek tentsioa sortuko du eta balioak kolokan jarriko dizkigu, bai irakasleoi bai gurasoei. Hausnarketa egin beharko dugu denok.

5.- Kontuan hartuta ikasleak hiru hizkuntza berri izan ditzakeela aurrean, oso ondo planifikatu beharko dugu ikaslearekin zein hizkuntza, zein egoeratan eta noiz landu. Oso garrantzitsua da hori guztia gurasoei azaltzea eta, ahal den neurrian, seme-alabei azaltzeko eskatzea.

6.- XXI. mendeko eskolaren ezaugarrietako bat kultur aniztasuna izango da. Hasi berria dugun bide honetan elkarlanak, denen artean zalantzak argitzeak, lorpenak partekatzeak... oztopoak gainditzen lagunduko digu. Estrategia horiek oso baliagarriak izan zaizkigu beste erronka batzuei aurre egiteko.

Bibliografia erabilgarria

Gehiago jakiteko:

- BESALU, Xavier: *Diversidad cultural y educación, Síntesis educación*, Madril, 2002.

Oso liburu egokia da kultura arteko hezkuntza zertan oinarritzen den eta nola garatu behar den jakiteko.

- SUAREZ-OROZCO, C. eta MM: *La infancia de la inmigración*, Morata, Madril, 2003.

Liburu honetan AEBn familia etorkinekin egindako ikerketa zabal baten emaitzak azaltzen dira. Hango errealtatean kokatu arren, oso liburu ona da immigrazio prozesuak zer diren ulertzeko: emigratzera bultzatzen duten faktoreak, identitate berriaren eraikuntza, eskolaren garrantzia...

- RUIZ BIKANDI, Uri (edit): *Didáctica de la Segunda lengua en educación infantil y primaria*, Síntesis Educación, Madril.

Oinarrizko liburua da bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan aritzen garen irakasleontzat. Hizkuntzaren gaitasun guztiak tratatzen ditu: ahokoaren eta idatziaren ulermena, nola irakatsi aho hizkuntza, irakurketa-idazketa prozesua, idatzizko ekoizpena...

Kultura arteko hezkuntza lantzen duten ipuinak

IZENBURUA	IDAZLEA	ARGITALETXEA
<i>Todos juntos vamos de safari</i>	Krebs, Laurie	Intermón/Oxfam
<i>Oulembe el Zahorí</i>	De Deu Prats, J.	Intermón/Oxfam
<i>¿Has visto mi cabra?</i>	Alakija, P	Intermón/Oxfam
<i>A Julia ...¡la quieren el doble!</i>	Ashley, B	Intermón/Oxfam
<i>¿Qué hay para comer, Jamela?</i>	Daly, Niki	Intermón/Oxfam
<i>El vestido de Jamela</i>	Daly, Niki	Intermón/Oxfam
<i>Una fiesta bajo las estrellas</i>	García, Q	Intermón/Oxfam
<i>Jafta (euskaraz ere badago)</i>	Kooper, L	Intermón/Oxfam
<i>Noaga y Juana (euskaraz ere badago)</i>	Joma	Intermón/Oxfam
<i>Madlenka</i>	Sis, P	Lumen
<i>El perro de Madlenka</i>	Sis, P	Lumen
<i>El espíritu del bosque</i>	Maddern, E	Blume
<i>Uno y siete</i>	Rodari, G	S.M.
<i>Boca cerrada</i>	Bigot, G	Edelvives
<i>Me llamo Yoon</i>	Recovits	Juventud

www.saretik.net/ostadarra

2.200 ikasle baino gehiagoren lanekin osatutako gunea. Helburu nagusia da ICTak curriculum barruan sartzea. Horretarako, testu generoak landu dituzte, ikasle etorkinen kultura aintzat hartuta. Prozesuan ICTak erabiltzen ikasi dute irakasleek zein ikasleek.

“Ez sartu informatika ikastarotan, ez galdu denbora”. Bilboko Berritzeguneko IKT aholkulariaren hitzak dira. “Photoshop ikastaroa amaitzen duzunerako, ahaztu zaizu nola arraio sartu argazki bat eskolako aldizkarian. Prozesuak justu kontrakoa izan behar du: eguneroko behar konkretu horiei erantzun ahala ikasi behar dugu ICTak erabiltzen”.

Filosofia horretan oinarrituta sortu dute Ostadarra proiektua: 200 irakasle eta 2.200 ikasle baino gehiagok elkarlanean osatutako web orria. Zeure gelak ere egin dezake ekarpena. Proiektuaren helburua testu generoak lantzea da, ikasgelako kultur aniztasuna ere aintzat hartuta. Prozesuan, gainera, ICTak erabiltzen ikasten da, modu erabat funtzionalen. Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei eta beren ikastaldee zuzenduta dago.



Marian YORK

BILBOKO BERRITZEGUNeko IKT AHOULKULARIA

www.saretik.net/ostadarra helbidetan, 2.200 ikasle baino gehiagok osatutako ipuinak, abestiak, poesiak aurkituko dituzu, hainbat hizkuntzatan eta kultura askotatik jasota. Horietako batzuk ahotsez kontatuta daude (haurra entzuten duzu ipuinak kontatzen edo poesia errezitatzen), beste batzuek irudi animazioa ere badute. Web orri honen helburua bikoitza da: batetik, ikasleekin testu generoak lantzea, horretarako ikasleek etxetik dakarten kultur ondarea baliatuz (ikasleak nongoak izan, hango ipuinak, poesiak eta kantutak lantzea baita proiektu honen gakoak). Kolonia, Txina, Argentina, Ida-

ho edota Perutik etorritako ikasleek gurasoek kontatutako ipuina, abestia edo poesia ekarri dute, talde osoaren aurrean kontatu dute, eta ondoren gelak landu egin du modu erakargarrian eskegitzeko web orrian. Ikasle etorkinen kulturari zein hizkuntzari gelan lekua egiten zaio horrela, eta ikasleak balortuak sentitzen dira. Gelan egindako lana web orrian eskegi behar denez, proiektuaren bigarren helburua ICTak erabiltzen ikastea da.

Eskura dituzu testu generoak lantzeko gidak eta ikasleen lanak eskegitzeko programa informatikoak

Proiektu honen atzean Bilboko Ostadarra irakasle mintegiaren lana dago. Web orriko atal bakoitza lantzeko gida bat prestatu dute, edozein irakasle jakin dezan zerotik hasita zer pauso eman behar dituen ikasleen lan bat web orri honetan zintzilikatzeko. “Nola egin” atalean testu genero hori lantzeko gidak edota webquest-ak proposatzen dira (webquest-a unitate didaktiko mota bat da, on-line egiten dena, Internet bidez). Gainera, testu genero hori lantzerakoan behar izan ditzakezun programa informatikoak ere bertatik jaitz ditzakezu, ekintza puntual hori burutzeko “txuleta” eta guzti (nola



grabatu ikaslea ipuina kontatzen eta gero Interneten eskegi? Nola sartu animazioa irudiarri? Halako ekimen zehatzak proposatzen dira, beharrezkoa den ekipamendua eta jarraitu beharreko pausoen argibide zehatzak emanez).

Ostadarra irakasle mintegiak proiektu honetan IKTez ikasitakoa izugarria da; eta gainera, edozein irakaslek bere zentrotik proiektuan parte hartzeko aukera jarri dute, bide bera eginez ikas dezaten, mintegira joan beharrik izan gabe. Web orriaren erakarpak utzi dituzten ikastetxeen artean, adibidez, Ciudad Realekoak ere ikus daitezke.

Herrien atala: gure ikasleen jatorrizko kulturarentzako leiho bat

Hirugarren Zikloko ikasleekin lantzeko herri buruzko atala osatu dute. Horrekin, ikasleek esanguratsua den herri buruz lan bat osatu dute gelan (herria hautatzerakoan, taldean zer jatorritako ikasleak dauden hartzen da kontuan). Gelan egindako lanak informazio sakona bildu du (kokapena, alde fisikoak, ekonomikoak, kultura, hizkuntza, festak, gizarte datuak...). Ikasgelan prozesu hori burutzeko, lehenik eta behin irakasleek mintegian "webquest" edo "altxorraren bila" moduko bat muntatu zuten (Internet bidezko beste unitate didaktiko bat da). Ondoren, irakasleek sortutako webquest-aren bidez eraiki zuten ikasleek herri buruzko lana. Bukatzeko, ikasleek lurralde hari buruzko ariketak edo jolas informatikoak sortu behar zituzten, beste eskoletako edonork jolastu ahal izateko modukoak: maparekin puzzlea osatzeko jokoak, herri bakoitzari bere bandera erlazionatzeko jolasak eta abar.

Gainera, proiektu hau ikastetxeen artean trukeak egiteko baliatu nahi izan dute. Hala, lanak erdibana egin dituzte beti bi ikastetxeen artean (eskola bakoitzak herri jakin baten ardura hartu du, eta modu honetan landu dute: bes-

te eskola dagoen herriari buruzko lan erdia osatu dute eta hari pasa diote, eta alderantziz, bere herriari buruzko lan erdia beste eskolakoek landurik iritsi zaie). Internetek eskaintzen duena horixe baita finean: pertsonen arteko harreman eta informazio sarea osatzea. •



Ostadarra irakasle mintegiak proiektu honetan IKTez ikasitakoa izugarria da; eta gainera, edozein irakaslek bere zentrotik proiektuan parte hartzeko aukera jarri dute.



Nolako Euskal Herriaz hitz egiten dugu gure eskoletan? Zer irakasten dugu?



Arratsalderako norbaitek kendu zuen ikastetxeko kortxoan goizean azaldu zen izenpetutako ohar hura:

“Eskola honetan denak oso jatorrak dira, baina gaztelaniaz hitz egiten da jolas orduetan (eta inork ez du ezer esaten). Euskal Herria hiru probintzia dira gure liburutetan (eta inork ez du ezer esaten). Nafarroa espainolek indarrez menderatu zutela ez digu inork erakutsi (eta inork ez du ezer esaten). Euskal Herriak libre bizitzeko eskubide politiko guztiak dituela ez digu inork erakutsi (eta inork ez du ezer esaten)... Eta ez pentsa Geografiako, Historiako, Gizarteko edo Euskarako irakasleak ez dauzkagunik. Jator askoak, gainera”.



Tomas URZAINKI

HISTORIALARIA ETA JURISTA

Subiranotasun beharra hezkuntza sisteman

Galdera kezkarriak

Oso jatorrak gara denok, baina inor ez da konturatu euskaldunon Estatu independentea Nafarroa denik, euskaldun guztiok nafarrak garenik, espainolek eta frantsesek biolentziaz konkistatu gintuztenik, subiranotasunik gabe gure gizarteak, hala indibidualki nola kolektiboki, ezin dituela demokratikoki gauzatu bere eskubide politikoak, kulturalak, sozialak eta ekonomikoak.

Norena da hezkuntza sistema?

Noren zerbitzura dago benetan hezkuntza sistema? Gure herrialdea menderatu duen estatu nazional handiak antolatu du hezkuntza orokorra, “hiritar nazionalak” lortzeko bitarteko nagusi gisa. Gobernu eredu anitzen bitartez (monarkia liberala, errepublikak, diktadurak), gaur egun bezala, hiritarrak homogeneousatzen saiatu da beti. Horrela, menperatutako gizarteak Estatuarena den gizarte menperatzaileen barruan desegin ditu.

Autozentsurarik ba al dago?

Oso adierazgarria da horrelako gaiek hezkuntza sisteman –zeina ez den gurea– duten zentsura edo autozentsura. Ikastetxeko kortxoan zeuden galderak kendu zituen eskuak, nahiz eta inkontzientea izan, oso ongi islatzen du egoera: tresna fidela da, nahiko ezkutatuta egon arren, irakasleak eta ikasleak alienatzeko, eta horrela, gizarte hori beste baten mendean dagoela ahaztu dezaten edo kontura ez daitezten.

Autozentsura desagertzea nahi baldin badugu, beharrezkoa da pertsonen artean sartzen diren ongi programatu-

tako eta planifikatutako hainbat elementu distorsionatzaile desagertzea.

Naziozidioaren elementu kaltegarri eta nabarmenetako bat hauxe da: itxuraz normala eta naturala bihurtu dela. Eta horrekin batera, baita Nafarroako historia ezkutatzea eta hura ezagutzeko beldur izatea ere: haren sistema juridikoa eta eskubide nazionalak kentzea eta ordezkatzeta; euskararen jazarpena edo linguizidioa; eta ondasunen suntsitzea, hots, oroimen kolektibo fisikoki ezabatzea.

Horrela, naziozidioa ohikoa bihurtzen da eta egunero-egunero jasaten da, indar ukiezin batek gertaerak horrela izatea bultzatuko balu bezala. Egia ezagutzeko beldur lauso bat sustatzen da, baina nonahikoa eta eraginkorra. Euskal gizarteak ezingo du askea eta osasuntsua izan, ez kolektiboki eta ez indibidualki, baldin eta ez bada konturatzan etengabeko naziozidio batean biktima eta objektu pasibo dela.

Gaztelaniaren nagusitasun planifikatua

Nafarroa konkistatu zen une berean, Nafarroa birtual espainol bat sortzeko planak zeuden. Gaztelako hegemoniaren azpian, menperatutako gizartea deuseztatzea zen helburua. Hala, Nebrijak zioen bere gramatikak nafarrak gaztelaniazkozteko balioko zuela. Garai hartan nafar gehienak euskal hiztunak ziren, eta batzuk elebidunak, erromantze nafarra hitz egiten zutelako.

Gizarte menperatuaren dikotomia "gure eskolan" irakats daiteke, euskaraz, eta irakasle jatorrekin. Baina espazio irekiak (kalea, jolaslekua...) gaztelania eta frantsesarentzat dira.

Linguizidioa etnizidio forma bat da, non herrialde batean jatorrizko hizkuntza ezabatzen den. Gaur egun ez dira erabiltzen lehen barra-barra erabilitako errepresiozko teknikak –suntsiketak, debekuak eta zigorrak–, giza eskubideen aurkakotzat har baitaitezke. Horregatik, Estatu nazional handiek beren hizkuntza ofizialean oinarritutako derrigorrezko hezkuntza erabiltzen dute, eta horixe inposatzen diete menperatu-

tako gizartei. Horrela, derrigorrezko irakaskuntzaren ondorioak denengana iristen dira, hala herritar autoktonoengana nola etorkinengana.

Gizarte politikoko baten existentzia ukatzen da bere Estatu propioan

Konkistetatik hasita, menperatzaileak euren neurrira egindako Euskal Herria inposatzen hasten dira, benetako Euskal Herria ezkutatzeko. Ondorio negargarria sortzen duen eredu da, eta gainera, denok egokitu behar dugu eredu horretara, baldin eta hiritarrak edota gizakiak izan nahi baldin badugu. Birtualak eta errealtateak etengabe egiten dute talka modu traumatikoan, eta errealtatea gaitzetsiz, ukatuz edo ezabatuz ezkutatzan dute.

Dokumentuek diotenarekin, errealtate irekia eta aurrefabrikatutako historia kontraesanean jartzen baldin bada, dokumentuak ezkutatu, gaizki interpretatu, ebasi edota puskatu egiten dituzte. Liburuek historia birtualaren gezurra agerian uzten baldin badute, gorde edo bahitu egiten dira, edo bestela, modu burutsuan ostrazismoaren egileak jazarri eta zigortu egiten dira.

Hondakin arkeologikoak edo monumentuak agertzen baldin badira, historia birtualaren araudien arabera interpretatzen dira, errealtatearen froga nabariak sakrifikatuz iruzurraren beharren zerbitzura.

Hezkuntza sisteman erabiltzen diren liburuak benetan gureak al dira? Zer islatzen dute, egia, errealtatea ala besteek nahi dutena?

Heziketaren subiranotasuna

Subiranotasunik gabe, praktikan, hezkuntza gizarte menperatzailearen interesen esku dago, eta desberdintasunean oinarritutako gizarte nagusiaren eta menpekoaren arteko harremana hor azpian gelditzen da. Horregatik, publikoa eta pribatua, gizarte menperatzailean baino ez dira benetan publiko eta pribatu.

Hezkuntza eredu autonomikoek ez diete gizartearen eskubideei erantzuten.

Ikastetxeko kortxoan zeuden galderak kendu zituen eskuak, nahiz eta inkontzientea izan, oso ongi islatzen du egoera: tresna fidela da irakasleak eta ikasleak alienatzeko.

Gizarte menperatzailearen –espainola eta frantsesa– nortasun hegemonikoaren oinarriak bermatzeko diseinatzen dira irakaskuntza programak, eta horien igorleak dira aipatu ditugun eredu autonomikoak. Horren arabera antolatzen dira sareak, langileak, programak, prestakuntza eta funtzionamenduaren kontrola.

Erabilitako arrazoibideak sinpleak eta errepikakorak dira. Horrela, eskola nazional frantsesa, haren babesleen arabera, publikoa izango litzateke, eta ekimen sozialetik sortutako ikastolen sarea, pribatua. Soilik kontzeptu horien esanahi juridikoari edo administratiboari begiratzen diote hori horrela dela esateko, eta bien bitartean, praktikan desnaturalizatuta gelditzen dira, bi gizarte eta kultura desberdinetako guneak nahasten baitira. Gainera, arlo politikoan ere desberdintasunak dituzte bi gune horiek. Ez dute esaten eskola frantses, nazional eta errepublikar horrek, nahiz eta euskara irakatsi, Nafarroa Behereko gizartearen edota Parisko eskola ingeles baten interes pribatuei erantzun diezaiekeela.

Beharrezkoa da kultura menperatzailearen interesaren premisa zein den jakitea. Bere gizartean publikoa izan daiteke, baina beste gizarte desberdin eta gainera menperatu batean interes

Gaur egun ez dira erabiltzen lehen barra-barra erabilitako errepresiozko teknikak.

Orain, Estatu nazional handiek

beren hizkuntza ofizialean oinarritutako derrigorrezko hezkuntza erabiltzen dute.

pribatu bilaka daiteke. Kasu horretan, eskola publikotzat hartzen den hori gizarte hegemonikoaren –frantsesa edo espainola– eskola pribatu bihur daiteke, helburu garbi batekin: normalean menperatua dagoen beste gizartean gainjartzea.

Estatu nazional handiaren eta haren gizarte menperatzailearen egitura “publiko” eta “pribatu” horiek erabiltzera behartuta daude hainbat eta hainbat eragile eta gizarte mugimendu. Haatik, beren kontzientzia dela-eta, eta lan egiten duten esparrua dena delakoa izanda, gaur egun daukaguna lortu dute. Benetan garrantzitsua honako hau da: talde horiek denek, ustez “publikoak” eta “pribatukoak” direnek, eta gizarte menperatu honetako partaide sentitzen direnek, denek elkarrekin lan egitea (korporatibismorik, protagonismorik edo alderdikeriari gabe), benetan librea izango den eskola baten alde, eta gure benetako kultura, kultura unibertsalean txertatuta irakatsiko duen eskolaren alde. Horretarako, egungo estatu nazional handiak kultur hegemoniaren edo bestelako neurrien bitartez jartzen dituen traba guztiei egin beharko diete aurre. Neutralak ez diren eragozpenak dira, eta nahiz eta hori ez-

kutatzen saiatu, erabat beligeranteak dira haien defentsan.

Lurraldetasuna

Lurraldetasunaren arazoak gure artean gehien zabaldu den pentsamendu nazionalista euskaldunak eduki duen itxuraldaketa aztertzeraz garrantzitsua. Izan ere, ez zaio kasurik egin euskaldunen estatu arkitektura multisekular eta europarrari. Nafarroako Estatu europarra, hasieran Iruñeko Erresuma zena, guztiz legitimatuta zegoen subjektu politiko gisa nazioarteko harremanetan. Gero bertatik indarrez sortu diren lurralde zatiek ez dute inoiz halakorik eduki.

Independentzia galdu eta zenbait mende beranduago sortu ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa probintzia moduan, gaur egun ezagutzen ditugun bezala. Beraz, lurraldetasunaren apurketa jarrera antijuridikoaren eta indarkeriaren ondorio da, *ius gentium*-aren aurkakoa eta nazioarteko itun guztien puskatzailea.

Gaztelako Erresumak, interes ekonomikoek eta estrategikoek bultzatuta, Nafarroako Erresumako itsas portuak konkistatu zituen 1200. urtean. Helburua garbia zen: Nafarroako itsasaldeko herri eta hiri industrialak bere egitea, eta Gaztelak itsasalde atlantikoan zuen eremua handitzea. Garai hartan soilik gaur egungo Santander zegoen haren esku, Asturias eta Galizia Leongo Erresumaren zati baitziren. Garai hartarako Ingalaterra Irlanda eta Gaskoniaren jabe egin zen.

Jatorrizko lurralde egitura “zazpi probintziek” osatu arren, gaur egun bestela ikusten dira: euskaldunen Estatuaren gainean jasandako atzerriko mendekotasunen ondorioz, probintzietan banatutako arkitektura daukagu, eta hori, konkista militarren, banaketa arbitrarioen eta inposatutako menegiteen ondorio da.

Nafarroaren ideia birtuala sortzen zuten zapaltzaileek nazionalismo handiaren teorikoen laguntza izan zuten; esate baterako, Renan-ena. Honakoa esaten zuen hark: “ahaztea, edo are

gehiago esatera ausartuko nintzateke, historia bera gaizki interpretatzea beharrezkoa da nazio bat eraikitzeke”. Eraikuntza birtualak bidea erraztea eskatzen du, eta horregatik jartzen dizkio iraganari ezaugarri pertsonalak eta egungo instituzioak aberriko mandatarik bakar gisa.

Asturiasko eta Borboiko etxearen Monarkia hispanikoarekiko kolaborazioa Julio Caro Barojak jaso zuen *La hora Navarra del siglo XVIII* lanean. Turkiar inperioaren barruan greziar elite batzuek egin zutenaren antzekoa egin zuten; otomandar boterearen goi karguetan eragin komertzial, industrial eta administratibo handia zuten, baina XIX. mendean, greziarren emantzipazioa iritsi zenean, berehala galdu zuten eragin hura.

Eskubide politikorik eza

Askatasuna eta eskubide politikoak dira gizarte batek dituen eskubide garrantzitsuenak, horietatik eratortzen baitira giza eskubide guztiak (kulturalak, sozialak, ekonomikoak eta demokratikoak). Beste baten menpe dagoen gizarte bat ez da subiranoa, eta beraz, ez dago demokraziarik. Hori dela-eta, gure gizarteak subiranotasuna berreskuratu behar du, eta horretarako bere konstituzioa eta estatua behar ditu.

Euskal gizarteak ez du bere subiranotasuna ezarri, gizarte espainiar eta frantziarraren eta haien Estaturen menpe dagoelako. Gatazkaren jatorri historikoa, politikoa da. Hori onartu behar da, eta beharrezkoa den subiranotasuna berreskuratu. Gaur egun ukatzen den Estatu nafarra onartetik abiatu behar da gatazkaren irtenbidea, horrek dakarren demokraziarik eza kontuan hartuta. Batetik, Nafarroako estatutasun gutxituak jasotako iruzur politikoa islatzen du; eta bestetik, egungo “demokraziaren” porrota dago. Beraz, demokraziari sakonean eragiten dioten arazoak eta guztion arteko elkarbizitza baketsua konpondu nahi badira, oinarritzko bi muga horiek aldi berean landu beharko dira; hots, Nafarroako Estatuaren ukapena eta demokraziarik eza. •

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

apirila

berriak

EHBek euskal curriculumean ikuspegi hezkidetzalea aintzat hartzeko eskatu du

EHBek euskal curriculumari egin dizkion ekarpenen artean, bat azpimarratu nahi izan du: ikuspegi hezkidetzalea. Une honetan euskal curriculumaren proposamena ikastetxeetan eztabaidatzen ari dela kontuan hartuz, ikuspegi horren berri eman du, aipatu eztabaidetan eragiteko eta ahalik eta curriculum osatuena egiteko.

EHBeren ustez, genero ikuspegitik gabeziak ditu derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumaren proposamenak. Gabezia larriak direla iritziz, hainbat proposamen egin dituzte.

Hezkuntza xedeari dagokionez, hezkuntzak askatzailea izan behar duela azpimarratzen dute. "Hezkuntza sozialki eraikitako errealitatea izaki, curriculumaren bidez errealitate horietaz jabetzea lortu behar da, modu horretan gizartea eraldatzeko gaitasuna izango baitugu".

Beste mundu bat posible delako lelotik beste mundu eredu batera igaro behar dela diote, eta euskal curriculumak ere beste mundu hori sortzeko ekarpena izan behar duela. "Mundu berri horren eraikuntzan emakumeak



EHBeko kideek hainbat arlotan lanean diharduten emakumeekin batera egin zuten prentsaurrekoa.

historian zehar eginiko ekarpena plazaratu behar da, emakumearen parte-hartzea bermatuko duten mekanismoak martxan jarri behar dira eta sexismorearen adierazle guztiak ezabatu behar dira".

Bistan da euskal curriculumak praktikan jartzeko baliabide pedagogikoak sortu beharko direla, eta lan horretan hezkidetzaren irizpidea aintzat hartzea eskatzen dute EHBeko kideek.

Laburtuz, egitasmoak politika hez-

kidetzale integral baten alde egin behar duela azpimarratzen dute. Horretarako, hainbat proposamen egin dituzte: hezkidetzaren aldeko egitasmoak gauzatzea (besteak beste, hezitzaileen prestakuntza, testu liburugintza, ikerketa, orientazio eta ebaluazio prozedurak...), hezitzaileen formazio etengabea bermatzea (ikastaroak, materiala erraztu...) eta egokiak diren baliabideen erabilpena bultzatzea (bideoak, ipuinak, albisteak...).

Lanbide Gaitasuna Lortzeko Gailuak titulazio berriei ireki die atea

Lan esperientzia eduki arren, titulurik gabeko pertsona asko dago. 2004ko urrian esperientzia hori frogatu eta hainbat baldintza eta proba bete ondoren, tituluak eskuratzeko aukera ematen duen sistema bat jarri zen martxan. Zortzi espezialitatean lor zitekeen tituluak: mekanizazioa, mekanizazio bidezko produkzioa, karrozeria, sukaldaritza, tresneria eta instalazio elektroteknikoak, telekomunikazio eta informati-

ka sistemak, eta linea eroanbideen instalazio eta mantentze elektromekanikoa. Orain beste lau gehiagotan eska daiteke: soldadura eta galdaragintza, ibilgailuen elektromekanika, obrak eta planak gauzatzea eta administrazioa eta finantzak.

Lanbide Gaitasuna Aitorteko Gailura sartzeko, espezialitateari lotutako bi urteko lan esperientzia egiaztatzea behar da. Horrez gain, teknikari titulua lortze-

ko gutxienez 18 urte izan behar dira, eta goi mailako teknikariaren titulurako 20 urte.

Orain arte 3.000tik gora langileri eman zaie informazioa eta 1.240 pertsonak eman dute izena ebaluatu eta aitorteko prozesuan.

Interesa duenak edota informazio gehiago nahi duenak lanbide eskoletara edo www.euskadi.net/lanbidez/ agentzia web orria jo dezakete.

Reggio Emiliara BIDAIA



Hik Hasik antolatuta

Egitaraua

Urriak 11, asteazkena
Euskal Herritik Italiarako bidaia.

Urriak 12, osteguna
Goizean
Aurkezpena.
Arratsaldean
Eskolak bisitatu.

Urriak 13, ostirala
Goiz eta arratsaldean
Eskolak bisitatu.

Urriak 14, larunbata
Goizean
Adin desberdinetako haurrei zuzendutako proiektuen azalpena.
Arratsaldean
Mahai inguru.

Urriak 15, igandea
Italiatik Euskal Herrirako bidaia.

Loris Malaguzzi (1920-1994)

- Loris Malaguzzi pedagogoak 55 urtetan zehar ikertu, esperimentatu eta burutu zituen 0-6 urteko haurrekin, gurasoekin eta hezitzaileekin erlazioatutako esperientziak Reggio Emilian.
- Berak zioenez, haurra da guztia-
ren erdigune eta herri osoak egon behar du inplikaturik haurren heziketan.

Reggio Emiliako ezau- garriak

- Eskola atseginak eta erosoak.
- Bizigarriak eta komunikagarriak.
- Ikerketa, ikasketa, kritika eta hausnarketarako lekuak.
- Gogobetetze pertsonala nahiz profesionala ematen dutenak.
- Familiartasunera, elkarrizketara, gertutasunera eta estilo demokratikora gonbidatzen dutenak.
- Haurrenganako errespetua oinarri dutenak.

- Haurra pertsona sendo, aberats eta gaitutzat hartzen duten eskolak.
- Proiektuak garatuz lan egiten dutenak.
- Garrantzitsuena haurtzarora uler-
tzeko duten modua da: aktiboa, inplikaturik, nortasun berrien iker-
tzailea, kritikoa, adierazpide an-
tzen erabiltzailea eta teoriaren sor-
tzailea.

Bidaia aukerak

Bisitari bakoitzarengatik eskatzen dutena..... 468 euro

Bidaia hegazkinez..... 375 euro
Hegazkinez Bolognara edo Milanera + Reggio Emiliara autobusez.

Hotela..... 320 euro
Banakako gela, hiri erdigunean, 3 izar, 4 gau, loa eta gosaria.

GUZTIRA..... 1.163 EURO

Informazio gehiago: www.hikhasi.com

Oharra: bisita HIK HASIren bidez egin behar da. Gainerakoa, HIK HASIren bidez edo norberak bere kontura egin dezake.

Antolatzaileen esku gelditzen da programa honi behar diren aldaketak egitea.

www.hikhasi.com



Berriak . Materialen salmenta . Udako
topaketak . Kontaktuak . Harpidetza .
Aldizkaria on-line .

Esperimentaldia 2006. Zientziaren Azoka

Donostiako Zientziaren KutxaGuneak **Esperimentaldia 2006, zientziaren azoka** antolatu du maiatzaren 5 eta 6an. Bi egun horietan zehar hainbat ikastetxetako ikasleek euren proiektuak azalduko dizkiete gerturatzaren deneri. Zientziarekin eta teknologiarekin lotutako proiektuak eta esperientziak izango dira eta maila desberdinetako ikasleek hartuko dute parte.



Apirilaren 2an ospatuko da Hizkuntza Eskubideen Eguna

EHEk Santurtzin antolatu du III. Hizkuntza Eskubideen Eguna. Aurtengo leloa Hizkuntza Eskubideen defentsa guztion esku dago! **izango da. Aisia eta aldarrikapena** uztartuko dituen egun honetan, euskaldun guztiok Euskal Herri osoan hizkuntza eskubide berberak dagozkigula aldarrikatu nahi da; bai herri euskaldunetan eta bai erdaldunetan.

Hik Hasi udako topaketak

Uztailaren 4, 5 eta 6an izango dira aurtengo *hik hasi* udako topaketa pedagogikoak Donostian. 36 ikastaroko eskaintza zabala prestatzen ari gara. Arratsaldeetan saio libreak egongo dira. Arratsalderen batean inork ezer aurkeztu nahiko balu, guri esan eta eskaera bideratuko dugu. Erne datorren hilabeteko aldizkariari eta...
www.hikhasi.com web guneari.



Behar dugun eskola jardunaldietan ez dute behar duten guztiek parte hartu



Nafarroako Gobernuak antolatuta, Behar dugun eskola izenburuko jardunaldiak egin ziren martxoaren 21 eta 22an Iruñean. Besteak beste, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Jose Antonio Garcia irakasleak parte hartu zuen, eta egungo gizartearen eta eskolaren arteko lotura aipatu zuen. Haren hitzetan, “eskolak aintzat hartu behar ditu egungo gizartearen ezaugarriak, eragin izugarria baitu eskolan”. Eskolaz gain, familia eredu askotarikoak, gizarteko aniztasuna, ikasleen ezaugarriak

eta eskola komunitate osoaren parte-hartzea ere kontuan hartu behar direla aipatu zuen.

Bestalde, ELA, EILAS eta LAB sindikatuek Nafarroako Gobernuak antolatutako jardunaldi hauek kritikatu egin dituzte. Euren ustez, ez du eztabaidarako inolako aukerarik ireki, eta sindikatuek, ikasleek eta gurasoek esku hartzeko aukerarik ez dute izan.

Sortzen-Ikasbatuazek Nafarroako Gobernuak euskarari emandako tratamendua kritikatu du, erabat alboratu baitu.

Ikastaroak

Hizkuntza eskubideak eta hezkuntza Europan

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean **“Hizkuntza eskubideak eta hezkuntza Europan”** izeneko jardunaldiak egingo dira **maiatzaren 10ean**. Egitaraua honakoa izango da:

9:00-10:15 *Gutxiengo hizkuntzak Europan*, Teresa Condeco, Europako Kontseilua.

10:15-11:30 *Hezkuntza elebiduna Irlandan*, Tina Hickey.

11:30-12:00 Atsedenaldia

12:00-13:15 *Hizkuntza ereduak lokan*, Felix Etxeberria.

13:15-15:30 Bazkalordua.

15:30-16:45 *Hezkuntza elebiduna Wallesen*, Meirion Pris Jones.

16:45-18:00 *Hezkuntza elebiduna Frisian*, Durk Gorter.

Informazio gehiagorako:

Tel.: 943 018 264

E-posta: l.etxeberria@ehu.es



Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen II. Nazioarteko Biltzarra egingo da apirilean

Apirilaren 6, 7 eta 8an Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek, II Nazioarteko biltzarra antolatu du. Ekitaldiak Bilboko Euskalduna Jauregian egingo dira eta gaia **Musika eskolak: gorantz doan inbertsioa** izango da. Elkartearen helburua Euskadiko ekimen publiko-komusika irakaskuntza ez-arautuasuspertea eta dinamizatzea da.

Biltzarraren egun bakoitzean gai orotariko hitzaldi, mahai inguru eta tailerrak egingo dira. Hortaz gain, foro birtuala, erakusketa guneak, kontzertuak... ere egingo dira.

Apirilak 6, osteguna

Musika eskolen gizarte eginkizuna

Hitzaldia: Musika Eskolen gizarte-arekiko betebeharrak.

Mahai inguruak:

- Musika Eskolen misioa eta ikuspe-
na, administrazioaren ikuspegitik.

- 1. eta 2. mailako musika: tradizio-
ko musika irakaskuntza.

Tailerrak:

- Afrikako perkusioa: erabilera
ikasgelan.

- Hitzik gabe: gorputzaren espre-
sioa komunikabide gisa.

- Soinu tresnak Euskal Herriko mu-
sikan.

Apirilak 7, ostirala


Pedagogia eta kudeaketa musika eskoletan

Hitzaldiak:

- Garaikideko musika.

- Musika eskolen kudeaketa eta co-
aching-a.

- Marketinga musika eskolatik.



Mahai inguruak:

- Eskaera berriak, eskaintza berriak-
Hainbat joera, teknologia berriak.

Tailerrak:

- Denbora eraginkortasunez kude-
atzeko oinarriko teknikak.

- Aplikazio berriak informatika mu-
sikalaren bidez.

- Jazz inprobisazioa.

- Entzuleen aurrean hitz egiteko
teknikak.

Apirilak 8, larunbata

Musika eta osasuna

Hitzaldiak:

- Gihar eta hezurretako patologiak
musika instrumentalean: ohiko gaixo-
tasunak.

- Haurtzaroan hasita ahotsa egoki
erabiltzearen garrantzia. Etorkizuneko
patologiaren prebentzioa.

Tailerrak:

- Musikoterapia.

- Dantza baliabide pedagogiko mo-
duan.


Aurkezpena:

- Musika eskolentzako material pe-
dagogikoa.

Informazio gehiagorako:


www.ehmecongress.com

argitalpenak



Karakolaren barruan
Xabier Mendiguren
ELKAR

Aurkikuntza handia izan zen ikerentzat amonaren logelan aurkitu zuen itsas karakola hura, urrutiko eta hurbileko hotsen gordetzailea. Karakolaren bueltan idatzitako ipuin honek gure bizitza errealeko gauza asko erakusten dizkigu literatura bide hartuta. Jokin Mitxelenaren marrazkiez ilustratuta dago lana •



Autobusaren zain
Alaitz Olaizola
EREIN

Eskuartearen duguna “antzoki txikia” bildumako antzezlan da. Edozein bazterretan gerta daitezke xelebrekeriak, gertaerarik arruntenak ere bitxikeriak bihur daitezkelako. Autobus geltoki batean, hainbat pertsona elkartzen joango dira, zein baino zein xelebreagoa, eta autobusa itxaroten ari diren bitartean, komedia hasiko da •



Astebeteko kontuak
Yolanda Arrieta
AIZKORRI


Yolanda Arrietak, asteeko zazpi egunak ikasteko aukera aparta ematen du zazpi istorio motzen bitartez. “Astebeteko kontuak” dira, astean zazpi gauza gerta daitezkeelako, zazpi txiki, zazpi handi, zazpi egun. *Mendi sorgindua* bildumako gainerako liburuak bezala, lehen irakurleei zuzendua dago liburu berri hau •



JAKINGARRIAK 57. zenbakia
HUHEZI

Hezkuntzari buruzko gogoetak egiten ditu Mondragon Unibertsitateak argitaratzen duen aldizkari honek. Azken ale honetan, “eleaniztasuna eskolan” da gai nagusia eta hainbat ikastetxetako proiektuak zein informazio eta baliabide interesgarriak ematen ditu.

Zenbaki honekin batera, Jakingarriak aldizkariak 20 urte bete ditu •



**Juan Diaz De Garaio,
Gasteizko Sacamantecas**
Aitxus Iñarra
GAIK

Juan Diaz de Garaio, Gasteizko *Sacamantecas*en azterketak, XIX. mendeko gizartearen klase boteretsuek herri xeheari igorri zizkioten irakaspenak ikertzeko aukera ematen digu, eta irakaspen horiekin agintariak lortu nahi zutena aztertzeko •



IHITZA 19. zenbakia
Eskolako agenda 21 zabaltzen
CEIDA

“Escolako agenda 21 zabaltzen” leloa duen aldizkari praktiko eta baliagarria da Ihitza. Ingurumen hezkuntza eguneroko praktikan integratzeko aukera aparta ematen duentresna hezitzailea dahonako hau. Azken atalean, biodibertsitatearekiko errespetua, ezagutza eta babesa jorratzen ditu, besteak beste •

... goza nazazu gehiago

Eskolak hizketan irakasten ez duen bitartean jai daukagu euskararen normalizazioan



Helena Baraibar eta
Kristina Boan

Ikastolen Elkarte

Ikaslearen gaitasun komunikatiboa lantzea izan behar du helburu irakas-kuntzak. Horretarako, hizkuntzen irakaskuntzan **ikuspegi komunikatiboaren aldeko hautua egin beharra dugu.**

Orain artean bezala, gela barruan hizkuntz erabiltzaile nagusiak irakasleok bagara eta ikasleen zeregin nagusia entzutea edo/eta galderak erantzutea bada, nola lortuko dugu ikaslea hiztun/erabiltzaile bihurtzea? Tradizio hori apurtuko duen planteamendu didaktikoa behar dugu, benetako elkarrizketa bultzatuko duena eta komunikazio joan-etorri horren kalitatea bideratuko duena.

Hautu metodologiko horrek baldintzatzen du garatuko dugun irakasle ikaste prozesu osoa. Izan ere, ikuspegi

estrukturalistatik edo komunikatibotik aritu, marko kurrikular guztiz bestelakoak ondorioztatzen dira; bai arloaren xedea definitzerakoan, bai helburuak eta edukiak definitzerakoan, bai jardueren hautaketan. Ikuspegi komunikatiboa geure egiteak bestalde, hizkuntzako irakasleak ez ezik, beste arlo-etako irakasleak ere harrapatzen ditu, horiek ere bai baitira hizkuntz irakasle, euren gaietan Euskara edukiak barneratzeko tresna baitute ikasleek.

Nola irakatsi hizketan: ahozko komunikazioa berariaz eskatzen duen proiektuen bidez

Proiektua egiteko funtzionala da ahozko komunikazioa, unitate didaktikoan landutako edukiei zertarakoa, kohesioa eta koherentzia emango die-na. Ahozko testuetan badira bi, eskolan ohikoak eta baliagarriak direnak, edozein arlotan erregistro jasoko ahozko komunikazioa jorratzeko: **jendaurreko irakurketa** eta **jendaurreko azalpena**. Bi trebezia horiek eskolan nagusi diren **simulazioetan** aukera paregabea ematen digute **proiektu baten jiran** ahozkoaren hainbat alde lantzeko, era sistematizatuan, eduki kontzeptualen zerbitzura.

ZER EGIN

Jendaurreko azalpena

Demagun, Bigarren Hezkuntzako ikasleak irakasle paperean jarri ditugula “jendaurreko azalpena” trebezia landuz. Labur esanda, hona jendaurrean ondo hitz egiteko bete beharreko baldintzak eta sistematikoki landu beharrekoak:

1. Gaiak jakitea.
2. Osagai diskurtsiboak menderatzea:
 - Ideiak antolatzea, ordenatzea.
3. Osagai lingusitikoak menderatzea:
 - Zuzentasun gramatikalari erreparatzea.
 - Hiztegi zabala menderatzea.
4. Bestelako osagaiak:
 - Intonazio egokia erabiltzea.
 - Ahoskera zuzena egitea.
 - Ozen aritzea.
 - Erritmo egokian aritzea.
 - Gorpuzkera egokia erakustea: jarrera, keinuak, imintzioak, begirada...
5. Komunikazio egoerako osagaiak: **komunikazio egoera kontuan izatea:**
 - Asmo komunikatiboa
 - Hartzaila
 - Hizkuntz erregistroa
 - Arau soziala

Nola gauzatzen da hori gelan?

- Talde lana antolatuz.
- Txosten idatziak sortuz.
- Txosten horiek ahozko testu bihurtuz idatzian.
- Bestelako osagaiez oharraraziz eta ahoz goraz entseatzuz.
- Jendaurreko azalpenak burutuz.
- Ahozko jardun horiek ebaluatuz.

atzeko atetik



Andoni AIZPURU

MAISUA ETA IKASLEA

- Baina... zu Andoni, ez zara meteorologoa, ezta?

- Ez, ez. Ez meteorologoa, ez eta meteOrologoa ere; alegia, ez naizela meteoroa aztertzeko unibertsitatera joan, 5 urte sartu eta lizentziatu moduan kalera atera diren horietakoa. Eta?

- Eta, zer...?

- Zer esan nahi duzu zehazki aipatu didazun horrekin?

- Ba..., ba... telebistan eguraldia emateko metere..., meteorologoa izatea derrigorrezkoa izan beharko lukeela uste dudala...

- Derrigorrezkoa hemen, mundu honetan, gauza bakarra omen, beste guztia... Ba al dakizu ni benetan ikasketaz zer naizen? Maisua. Gauzak irakas-

Ikusi eta ikasi

tea, neuk ikasi eta gero erakustea gustatzen zait, izugarri gainera, eta telebistan horixe egiten saiatzen naiz egunero; nik dakidan apurra, besteei azaltzen ahalegindu.”

Hasierako erretolika horretan bildu dudana behin baino gehiagotan aipatu didate niri eta ez dut ukatuko zati batean arrazoi dutela, baina beste batean, agian, ez hainbeste. Has nadin, beraz, gauzak zehazten. Ikasi, ikasi, modu askotan ikas litezke edukiak bizitza honetan. Eskola, ikastola, unibertsitatea dira horietako batzuk, garrantzitsuak dudarik gabe. Baina gero, horiez gain, badira hainbat eta hainbat “jakin beharreko” inon irakasten ez dituztenak, norberak, sena edo jakin-mina erabiliz bereganatu beharrekoak.

Eta nik gaur dudan lanbidean, beste askotan bezalaxe, bigarren osagai horrek berebiziko garrantzia duela uste dut. Izan ere, garai batean “dena zegoen liburuetan” eta gaur egun “dena dago Interneten”. Informazioa erruz dago, meteorologo ahalguztidunek osatutako modela, mapa, datu bildu-

ma, iragarpen eta txostenez josita dugu sare; horiek guztiak interpretatzen eta gure Herri honi gehien egokitzen zaiona aukeratzen dago gakoa gehienetan. Galbahea nola erabili, hitz batean esateko.

Baina, beste alde batetik, ikasteko ikusi egin behar dela gogorarazi behar zaio askori. Ikusi eta... ikasi; tartean aztertu, hausnartu eta ondorioak ateraz. Ba al dakizue gure Herri honetako eguraldiaren katramila asko non ikasi ditudan: ingurukoekin hitz eginez, edadetuekin batik bat. Makina bat lezio eman zizkidan osaba Joanek amaren jaiotetxeko baserriko ikuiluan behiak jezten zituen bitartean. Eta Pellok, Pello Zabalak... bera ere ez da meteorologoa, baina zertzuk dakizki eguraldiaz! Bere ikasle izan garenok inoiz ez diogu eskertuko guri erakutsitako guztia.

Beraz ikasi, ikasi gazteok; aukeratu ondo zuen gogoko ikasketa. Baina gero ikusi, ikusi eta segi ikasten, bizitza bera bezalako web orrialderik ez baitu egundo inork asmatu Interneten ipintzeko. •




Ikerketa baten arabera, Lehen Hezkuntza amaitzen dutenerako 8.000 hilketa eta 10.000 bortizkeria ikusiak dituzte telebistan gure ikasleek.

eta **Joserrak** beste 13 urte haur antzerkiaren pedagogian, eta haur, gazte eta helduei klown ikastaroak ematen.

Dabid Errastik eta **Joserra Fachadok** urte dexente daramagu **klownen** munduan murgildurik.

Dabiden kasuan, "Txoronpio, Pantxi eta Pantxo" pailazoekin 10 urte plazaz plaza ibilita;



Niko eta

Gure lehenengo muntaia haurrei begira osatu dugu. Bertan, Niko eta Periko betiko lagunak, egunero bezala jolasteko geratuko gara, baina beti dago zerbait: etxerako lanak, partikularrak, solfeoa, ingelesa...

Gaur egun hainbeste zabaldutako moralina eta didaktismo hutsetik urrundu eta lan fresko eta dibertigarri honekin ondo pasatzea eta jolasaren plazer soila bilatzen ditugu.

Periko

IRAUPENA: ordubete
NORENTZAT: 4 urtetik aurrerakoentzat
BEHAR TEKNIKOAK: entxufe bat eta umore asko

jr-fachado@euskalnet.net

HARREMANA:

656710494
617903227

Reggio Emilia, Italiako haur eskolak ezagutzeko bidaia

Urriaren
11tik 15era



Informazioa eta izena ematea:
www.hikhasi.com

Epea: maiatzak 12

hh
hik hasi